

TOKIKOM

2023ko azaroa | 241. zenbakia

# aike! txorierriko



Maria Gorosarri González

Kazetaritza eta  
feminismoa, ardatz

# aikor!

txorierriko aldizkaria



# Konekta zaitez gurekin!



**Parte hartu aikor.eus webgunean**

**Zure argazkiak eta albisteak bidali**



**E-posta:**  
aikortxori@aikor.com



**WhatsApp:**  
688 86 41 35

-  4 Iritziak
-  5 Gutunak
-  6 Laburrak
-  12 Gurean izan da... Leire Milikua
-  14 Gaztea eta... Jorge Barrena Marin
-  16 Menditik patxadaz... Mundu *rupestrea*
-  18 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  20 Gai nagusia... Maria Gorosarri González
-  26 Euskararen Eguna
-  28 Oroimen historikoa
-  30 Azaroak 30
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Horma-belarra
-  34 Psikologia
-  35 Txangoak Loiu Gurenan
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 Leire Milikua, agroekologian aditua



30 Azaroak 30, greba feminista orokorra



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
**Diputación  
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)  
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Maketatzailea eta erredaktorea:** Nahia Coello

**Kolaboratzaileak:** Toti Martínez de Lezea, Ana Mezo, @txiribita\_mundi, Juanjo Ortiz, Joanes Camara Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxa

**Zuzentzaileak:** Iñaki Astorkiza

**Publizitatea:** Amaia Lekue (688 782 642)

**Banaketa:** Eragin

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

# Euskara eta kultura

Zalantza barik, euskara Euskal Herriko kultura-ondasunik handiena da, bere jatorria zein den oraindik ez dakigun altxorra, gure herriak ez baitzuen inoiz idatzi; bere historia, ohiturak eta bizimoduak ahoz helarazi zituen. Oso eza-gunak dira euskarak mendeetan zehar pasatu dituen zailtasunak, behin baino gehiagotan desagertzeko zorian ere egonda, bereziki diktadura frankistaren urteetan, zeinetan familiarik harago erabiltzea debekatu zen; hirietan, herri handietan eta lurraldearen hegoaldeko herrietan guztiz desagertu zen. Nork irakatsi ere ez zegoen, ezta libururik ere, eta hortaz euskara ikastea zail-zaila zen. Hala ere, euskaldunok burugogorak gara, oso.

Egia da instituzioek euren ekarpena egin dutela hezkuntzan, osasunean eta ha-inbat erakundetan euskararen erabilera derrigortzean, baina ezin dugu ahaztu lehen urratsak guraso erdaldunek egin zi-

tuztela, seme-alabek euskaraz hitz egitea nahi zutenek; euskaldunek ez zioten ezta euren buruari ere proposatzen, hizkuntza ezagutzen zutelako, nahiz eta... Ez da nahikoa instituzioak politika-arloan eta epaitegietan borrokan ibiltzea, kultura euskalduna orokorrean babesten ez badute. Herri txikia gara, mila aldiz indartsuagoak diren bi herriren artean kokatuta, eta horregatik, kultura da bizirauteko dugun bide bakarra; gure kultura ez da haiena baino hobe edo txarragoa, gurea baizik.

Ezer gutxirako balio du legeak eta arauak egiteak, mantentzea hainbeste esfortzu kostatu eta kostatzen den kultura-sarea aintzat hartzen ez bada; idazleek, musikariek, pintoreek, aktoreek, zinemagileek eta artistek kultura-arduradunen aldetik babes txikiena ere jasotzen ez badute; kultura-arduradunei, bestalde, ahoa betetzen zaie haien lorpenei buruz hitz egiten dutenean, eta gure kultura kosta ahala kosta zabaltzen



**TOTI MARTINEZ DE LEZEA**  
Idazlea

tematu diren dozenaka sortzailererenak alde batera uzten dituzte. Polita da argazkian ateratzea, baina askoz politagoa izango litzateke, sortzaile horien lanari diruz lagunduko baliote eta liburuen aurkezpen eta azoketan, musika- eta antzerki-ikuskizunetan, zine-emanaldietan eta abarretan azalduko balira. Baten bat noizean behin, oso noizean behin, agertzen da, baina orokorrean desagertuta daude eta artista batzuk baino ez dituzte aintzat hartzen, aurretik gure lurraldetik kanpo aintzat hartu badituzte.

## Emakumeak, adinekoak, pentsiodunak

Azaroan baditugu bi data garrantzitsu: 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna; eta 30a, Greba Feminista Orokorra.

Uztailean Emakundek aurkeztutako lan baten arabera, EAEn 65 urtetik gorako lau emakumetik batek indarkeria matxista jaso du bizitzan zehar eta 16.500 emakumek indarkeria matxista pairatzen dute gaur egun. Datuak ezkutuan egon arren, Pentsiodunen Mugimendukook sarri salatu ditugu egoera horiek. Indarkeria kasuak zahartzaroan kroniko bihurtzen dira, eta funtsean indarkeria psikologikoa da eta

etxeko ekonomiaren kontroletik eratortzen dena. Beraz, kontrol ekonomikoari aurre egiten hasteko lehentasunezko exijentzia da gutxienez 1.080 euroko pentsioa kobratzea, 14 ordainsaritan.

Beste alde batetik, emakumeei aitortu behar zaie dohainik eta familia-esparruan egin duten zaintzaile-lana, zor historiko-patriarkala delako. Emakumea bigarren lerroan egon da, lan produktiboa erreproduktiboaren gainetik egon delako. Baina zaintza lan hau izan da bizitza sostengatu duena. Horrek emakumeei ekarri die bizitza pertsonala baztertzea, ikusezin bihurtzea. Oraindik ere merkatuaren ekonomiak,

kapitalismoak, emakumeak behar ditu zaintzaren zama nagusia har dezaten. Beraz, 30ean kalean izango gara denon zaintza eskubidearen alde.



**ANA MEZO BASARAS**  
Euskal Herriko Pentsiodunen Elkarteko kidea

**EL PUNTO BOBO**  
*Espazio Creativo*

Iturrigane 1 - Sondika  
Tel. 946 855 612 - 699 133 157  
info@elpuntobobo.com - www.elpuntobobo.com

**TABERNA GAZTEI**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**PsikoNeuro**  
TXORIERRI

Psikologia eta Neuropsikologia

Derioko Seminarioa, A eraikuntza 3. solairuan

611 172 488  
psikoneurotxorierri@gmail.com  
@psikoneuro\_txorierri

# Enrique de la Peña Sondikako medikuak erretiroa hartu du

Gutxi falta da 2023. urtea amaitzeko, eta urte honetan hain zuzen Sondikako osasun-etxeko lankideak, Enrique de la Peña, erretiroa hartu du, bertan 33 urtean familia-mediku ibili ondoren.

Hasiera-hasieratik izan da Lehen Mailako Arretaren aldeko kartsua, eta Uribeko Eskualdeko erreferente bihurtu da, bizitza osasuntsua eta asistentzia-kalitatea bultzatu du eta. Horrela, Bizitza Osasuntsua egitasmoagatik eta hura Sondikan ezartzeagatik jaso zuen Hemendik Sariak Txorierrri golardoa. Saria bere gogo biziari esker lortu zuen, eta gogo bizi hori hain zuzen kutsatu zigun lankideoi zein egitasmoan parte hartu zuten Sondikako pazienteei.

Ez dugu inoiz Enriqueren lan egiteko gaitasun handia ahaztuko, lan-ordutegitik haragokoa, ezta lanean erabilitako metodoa eta berarekin lan egiten genueno

emateko gai zen ilusioa ere. Era berean, ez dugu ahaztuko jakiteko grina handi handia duela, bai medikuntza arloan, bai beste esparru batzuetan. Esaterako, kultura grekoan aditua da, zeina izugarri gustatzen zaion, eta lankideoi hari buruzko hitzaldi atseginak oparitzen zizkigun, eta hainbat kontu irakatsi. Eta nola ez, gure historia hurbilaren inguruan duen maitasuna: hori ondo baino hobeto islatu zuen 2015ean argitaratu zuen *El tío Tomás* ikerketa-lanean, Tomás de Zumalakarregiri buruzkoa.

Sondikan bere pazienteak izan zirenek zorte handia izan zuten, Enrique beren familia-medikua izan zelako, edo lehen esaten zen moduan, "médico de cabecera". Bere lankideok izan ginenok ere asko ikasi eta gozatu genuen Enriquerekin.

*Sondikako osasun-etxeko langileok*

## WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

### Dionisio Rejas Hernando

da azaroko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



*Txorierrin, ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.*



**MAILA GUZTIAK: A1 A2 B1 B2 C1**

**Goizez eta arratsaldez**

**AUTOIKASKUNTZA**

Dirulaguntzak

**Erdu Geugaz!**

**#euskarharrigarria**

**EUSKARA  
HARRIGARRIA**

## Berrikuntzak Sondikako Ludoteketan eta Gaztetxean

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, berrikuntzak ezarri dira kultura-zerbitzuetan eta Ludotekek eta Gaztetxeak ordutegi berria izango dute. Horrela, Gaztetxea ez da eguenetan zabalduko, baina horren ordez luzatu da asteburuko ordutegia. Era berean, zapatuetan Txikigazteleku egongo da Ludoteka II, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gaztetxoentzat.

Ludoteka I hiru urtetik gorako meek erabili dezakete Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte, eta astelehenetik barikura arte dago zabalik 17:00etatik 19:00etara. Ludoteka II, bestalde, astelehenetik barikura bitartean, 17:00etatik 19:00etara, zabalik dago 3. eta 4. mailako umeentzat;

eta martitzenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara, 5. eta 6. mailako umeentzat. Gainera, zapatuetan ere, 17:00etatik 20:00etara, Txikigazteleku-zerbitzua emango da azken horientzat. Gaztetxoek instalazioak eta hango materiala eta jolasak erabili ahalko dituzte. Zerbitzua apirilera arte emango da.

Gaztetxea DBHko 1. mailatik aurrerako gazteek erabili dezakete. Bere ordutegia da barikuetan eta zapatuetan, 17:00etatik 22:00etara, eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara. Azaldu duten moduan, urtean hiru musika-ekitaldi edo ikuskizun egingo dira, eta bi gau-jai, 00:00ak arte eta begiraleek zainduta. Halaber, asteburuko txango bat egingo da.



## Milaka lagun hurbildu ziren Zamudiora



Zamudiora milaka lagun hurbildu ziren azaroaren lehen asteburuan, Zamudioko Azoka eta Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azoka gozatzera; lehenengoarena 36. edizioa izan da aurtengoa, eta bigarrenarena 9. aldia. Euskal nekazaritzako produkturik onenez gainera, artisautza-lanak eta txokolate gozoa eraman ziren azokara, eta, era berean, Euskadiko XXIX. Limusin Ganadu Txapelketa egin zen. Egitarauaren baitan, garagardoaren, txakolinaren eta Idiazabal gaztaren dastatze iruzkindunak izan ziren, eta, nobedade moduan, zapatuan Puro Relajo taldearen kontzertua izan zen herri-gunean.

Lander Aretxabaleta, Zamudioko alkatea, pozik agertu zen azokak izan zuen erantzunarekin eta ekoizleei eman zitzaizkien laguntzarekin. "Zapaturako eguraldi txarra iragarrita egon arren, jende ugari hurbildu zen Zamudiora, artisauen proposamenez



gozatzera, eta gero animatu ziren Puro Relajo taldearekin dantzatzera. Eta domekan pozez ikusi genuen nola azoka-esparrua jendez betetzen zen, jai-giro ederrean. Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko ekoizleak ere pozik irten ziren publikoarekin harreman zuzena izateko leihoa den hitzordu honekin".

Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka Bizkaiko azoka garrantzitsuenetakoa da, "urtero biltzen duen jendetza handiagatik, bai lehen sektoreari ematen dion laguntzagatik". Azokan 90 saltoki baino gehiago atondu ziren, eta bertaratutakoek kalitate bikaineko base-erriko produktuak erosi ahal izan zituzten, hala nola, barazkiak, fruta, gazta, ezti, ogia, pastelak eta txakolina. Bestalde, Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokak ere hainbat pertsona bildu zituen, eta zapatuan herri-bazkaria egon zen, Gure Porrusalda eta limusin-katxopoa dastatuta.

### Sariak

Beste aldetik, sariak ere banatu ziren domekan: Edurtxeta Atutxa, barazki-posturik onena; David Etxebarria, fruta-posturik onena eta Patxi Baskaran, gazta-posturik onena. Magalarte Zamudiok, Erdikoetxek (Lezama) eta Gozamaena/Erdikoetxek intseminazio artifizialaren bidezko animaliarik onena; Tomasa Aurora Barón, txapeldun gaztea; eta Fidel Abans ganadutegia (Orozko), behi heldurik onena. Txapelketa LORRA kooperatibak antolatzen du urtero, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Zamudioko Udalarekin eta BBKrekin lankidetzan. Lehiaketaren helburuak dira limusin arraza sustatzea eta zabaltzea eta arrazaren hobekuntza genetikoak jendaurrean aurkeztea.

# Aldundiak hainbat neurri hartuko ditu garraio publikoa sustatzeko

Bizkaiko Foru Aldundiak kalitateko zerbitzuen bidez garraio publikoa sustatzeko plana egin du. Planak sei jarduketa ditu, aurtuen hasi eta 2027ra arte garatuko direnak: Bizkaibuseen Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro tituluak sartzea; zonakatze-sistema sinplifikatzea; transbordoaren kostua kentzea; tarifak bateratzea; zonakatze-sistema sinplifikatzea; Bizkaibuseko maiztasunak hobetzea eta gobernantza-eredu berria ezartzea.

Planaren helburua da Bizkaiko garraio publikoa sistema-sare bakarra eta integratua izatea, eta garraio publikoa gehien erabiltzen dutenek abantailak izatea. Horretarako hartuko den lehen neurria da datorren urtetik aurrera Bizkaibuseen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (CTB) aldi baterako tituluak sartzea: Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro. Ondorioz, autobusaren erabiltzaileek metroaren erabiltzaileek dagoeneko erabiltzen dituzten titulu berberak erabili ahalko dituzte, eta deskontu berberak izan. Planaren beste neurri bat da zonakatze-sistema sinplifikatzea eta 2025ean bost zona egotetik hiru zona egotera pasatzea.

Bestalde, transbordoaren kostua kenduko da, eta horretarako, datorren urtean proba pilotua egingo da Bizkaibuseen. Neurria garraio bide guztietan ezarriko da 2027an. Urte horretan ere garraio publikoko operadoreen tarifak bateratuko dira eta sistema bateratu berriak kontuan hartuko ditu erabileraren maiztasuna eta erabiltzaileen errenta. Halaber, aurreikusi da 2027rako Bizkaibuseko maiztasunak aztertzea eta hobetzea, eta garraio publikoko beste aukerarik ez duten eremuetan zerbitzua indartzea. Bikoizta-

sunak ere aztertuko dira, garraio publikoa berrantolatzea eta optimizatzeko. Azken neurria da gobernantza-eredu berria ezartzea, erabateko integrazioa- administratiboa, tarifa modalari lotutakoa eta teknologikoa- lortzeko eta gaur egungo eta etorkizuneko azpiegiturak modu partekatuan gehiago erabiltzeko.

## Deskontuak

Bizkaiko Foru Aldundiak, beste alde batetik, garraio publikoaren tarifetan ezarritako % 20ko hobariari eutsiko dio datorren urtean, eta Bilboko Metroan indarrean dauden deskontuak datorren urteko urtarrilaren arte luzatuko dira: deskontuak ez ziren uztailearen 13 egunean ezarri eta neurriak hori konpentsatuko du.

Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahal-dun Nagusiaren esanetan, neurri iraunkorrek dira, epe ertainerako eta luzerako helburuak dituzte, eta ez dagoz bat inflazioak eta egungo egoera geopolitikoak eragindako egoera sozio-ekonomikoarekin. Azaldu moduan, zerbitzuak hobetzea Bizkaia Denontzat legealdiko planean dago jasota, "lurralde-oreka eta bizkaitar guztien aukera-berdintasuna indartzeko", eta funtsezkoa da "klimatek erronkari heltzeko eta ingurumen-trantsizioan aurrera egiteko, mugikortasuna deskarbonizatzen laguntzen baitu". Era berean, Etxanobek adierazi du Aldundiak funtsezkotzat jotzen duela "garraio publikoko sistema eraginkorra eta kalitatekoa izatea", eta aurrekontu-proiektuan 195 milioi euro bideratu dituztela garraio publikora, metroa eta Bizkaibusera. "Kopuru hori Aldundiaren baliabide ekonomikoren % 12 da".

# Loiuko umeek erabilera anitzeko gela erabili ahalko dute urte amaiera arte

Josu Andoni Begoña Loiuko alkatetik bere webgunearen bidez jakinarazi duenez, Zabalotzeko kultura-etxeak erabilera anitzeko gela urte amaierara arte erabili ahalko da, herriko umeek bertan hotzetik eta eguraldi txarretik babestu ahal izateko. Gela zapatuetan eta domeketan erabili ahalko da, 17:00etatik 20:00etara, jaiegunetan eta zubietan izan ezik; era berean, gelan ekintza berezirik antolatuz gero, ezin izango da hura erabili. Hamar euroko fidantza ordaindu beharko da, eta dirua aretoa erabili ondoren itzuliko da.

Loiun erroldatutako 18 urtetik gorakoek eskatu ahalko dute aretoa erabiltzea; horretarako, inskripzio-fitxa bat bete beharko dute, euren datuak adierazita. Aretoaren giltza barikuan hartuko dute udaletxean, eta astelehenean itzuli. Erabilera- eta funtzionamendu-arauetan jaso duten moduan, erabiltzaileek zaindu beharko dituzte aretoa eta materiala, eta kalterik izanez gero, udalari jakinarazi beharko diote. Aretoan ezin izango da jan, ezta pilotarik erabili ere.

# Senerrek instalazioa zabalduko du Zamudion

Sener taldeak merkatu aeroespazialera begirako instalazioa zabalduko du Zamudion. Urriaren amaieran lehen harria ipini zuten bertan. Ekitaldian parte hartu zuten Andres Sendagortak eta Jorge Sendagortak, taldearen presidentek eta CEOk hain zuzen, Iñigo Urkullu lehendakariak, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahal-dun Nagusiak eta Lander Aretxabaleta Zamudioko alkateak. Instalazioa 2025eko amaierako amaizua egongo da eta bertan 25 milioi euroko hasierako inbertsioa egingo da. Konpainiak 30.000 metro karratuko azalera erosi du eta han merkatu aeroespazialari lotutako industria-ekoizpenaren zentroa eta ingeniari-zerbitzuak jarriko dira.



## Ordenantza fiskalen aldaketa, Lezaman

Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen ordenantza 2024. ekitaldirako aldatzeko asmoa du Lezamako Udalak. Kontsulta publikoaren epea abenduaren 19ra arte izango da zabalik, eta hura amaitu ondoren, udalbatzak behin betiko erabakia hartuko du aurkeztutako erreklamazioak ebatziz.

Aldaketak hurrengo arlo hauek arautzen dituzten ordenantzetan izango du eragina: trakzio mekanikoko ibilgailuak; jarduera ekonomikoak; eraikuntza, instalazioak eta obrak; zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak; kultur jarduerak eta zerbitzuak; eta kultura arloko ikastaroak, tailerrak eta jarduerak. Aldaketa 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Informazio gehiagorako, udal-webguzera jo daiteke: lezama.eus.

## Mareas liburua gehitu diote Toti Martinez de Lezea Bibliotekari

Toti Martinez de Lezea idazle larrabetzuarrak Erein argitaletxearekin lan egiten du gaur egun; hala ere, aurretik beste argitaletxe batzuekin kaleratutako liburu asko agortuta daude eta irakurleek oraindik eskatzen dituzte. Hori dela eta, Ereinek eta Martinez de Lezeak bilduma berria sustatu zuten duela urte batzuk: Toti Martinez de Lezea Biblioteka. Bibliotekari gehitu dioten azken lana *Mareas* da, gaurtik aurrera eskuratu ahal dena.

Larrabetzuko idazleak euskal kostaldeko emakumeen memoria berreskuratu du *Mareas* liburuan, gure herriaren historian presente egon arren, haiei buruz gutxi idatzi da eta.

Lana 35 kontakizunek osatzen dute, zeinetan, besteak beste, emakume hauek protagonistak baitira: ostalariak, esklaboak, alargunak, kontrabandistak, enpresariak, bortxatuak, sendalariak eta batelariak.

Dagoeneko bederatzi nobela batu dira Toti Martinez de Lezea Bibliotekan, eta haiei artean daude *Los hijos de Ogaiz*, *La herbolera* eta *El jardín de la oca*.



## Giro aparta Sondikako azokan

a: Juanjo Ortiz

Eguraldia lagun, azaroaren 19an hainbat eta hainbat herritar eta bisitari hurbildu ziren Sondikako Euskal Azokara; aurten azokaren 25. edizioa bete da. Baserriko produktuez eta artisautza-lanez gainera, hainbat ekintza izan ziren goiz osoan azokaren egitarauaren baitan, hala nola kalejira, umeentzako tailerrak eta kaleko antzerkia. Era berean, dantza- eta kantu-poteoa egin zen Gorantzaileak dantza-taldeak, Ipar Elaiak txistu-taldeak eta Txuma Olagüe abesbatzak eta talde koralak girotuta, eta Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeak goiza biribilduko zuten.



**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisol 4, behea B **634 410 470**  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK  
Logopedia  
Podologia  
Kiroprasajea

**clínica dental ZAINDUZ hortz klinika**

Txorierri etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com



## 23. KORRIKAK herri oso baten harrotasuna erakutsiko du Irundik Baionara

“Harro Herri” lelopean, 23. KORRIKAK euskararen herria zeharkatuko du martxoaren 14tik 24ra, Irundik Baionara. AEK-k azaldu moduan, aurtengo leloa “euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle eta erakusle da. Bestalde, omendua Azterketak Euskaraz kolektiboa izango da.

Leloaz gainera, KORRIKAREN 23. edizioaren mezua eta iruditeria erakutsi zuen AEK-k aurkezpen-ekitaldian. Bidelagunak ere bildu ziren Donostiako San Telmo museoan egindako aurkezpenean, eta argazki jendetsua atera zuten “euskal komunitatearen indarra eta harrotasuna erakusteko.

Euskararen aldeko mobilizaziorik handiena Irunen hasiko da martxoaren 14an, eta hamar gauren

eta hamaika egunen buruan Baionan amaituko da martxoaren 24an. Lekuko barruko mezu sekretua irakurriko da bertan, eta egun osoko jai-egitaraua gozatu.

AEK-k gogora ekarri zuenez, “aurreko edizioeko parte-hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula. Oztopo guztiak gainditzeko gai den herri harroa, eta harro KORRIKAN”. Aitziber Balantzategi Ibargoitia AEK-ko Artezkartiza-kontseiluaren lehendakariaren eta KORRIKA batzordeko kidearen esanetan, “KORRIKAK herri-aldarri alai eta tinkoa izan nahi du, eta, oraindik ere, aurreko KORRIKAKO indar-erakustaldia oso iltzatuta dugu begiradan”.

Hala ere, harrotasun hori konformismoarekin nahastu behar ez dela azpimarratu zuen, eta erakundeek euskararen normalizazioan duten ardura garrantzitsua gogorarazi.

“Herritarren ahaleginaz batera, hizkuntza-politika ausartagoa eta inbertsioak egin behar dituzte. Bien bitartean, orain arte bezala, KORRIKAK jasoko duen dirua euskararen normalizaziora bideratuko da Euskal Herri osoan”.

Esan moduan, aurtengo omendua bada herritarren ahalegin horren adierazlea: Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektibo gaztea, zeinak, Frantziako Estatuko hizkuntza-legeari aurre eginda, bigarren hezkuntzaren lehen zikloaren amaieran egiten den azterketa eta bigarren hezkuntza amaituta egiten dena euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen duen. “Gazte hauek, beren ikasketen une oso erabakigarrian, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, beren notak eta etorkizun akademikoa kaltetuak izango direla jakitun”, adierazi zuen Ane Elordi Alburquerque KORRIKA koordinatzaile nagusiak. KORRIKAK eskainiko dien omenaldia haien egoera ezagutzera emateko bozgorailu izateko esperantza aipatu du Elordik.



## Pintaketei buruzko ordenantza berria onartu dute Loiu

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean iragarri duenez, pintaketei buruzko ordenantza berria onartu du udal-gobernuaren taldeak. "Ordenantzari esker pintadak askoz prozesu arinago eta eraginkorrago baten bidez ezabatu ahalko dira eta ez du kosturik izango auzokideen erkidegoetarako", idatzi du.

Azaldu moduan, urbanizazioak eta eraikinak mantentzea eta garbitzea titularrei dagokien arren, "egoera jakinek hala eskatzen dutenean eta interes orokorreko hobekuntzak lortzeko, udalak garbiketala-ekin egin ahalko ditu udal-funtsen kontura". Garbiketala-ekin bide publikora begira dauden fatxadetan egingo dira eta etxe-jabeen baimena eskatuko da horretarako.

## Jostailu-bilketa solidarioa Derion

Aurreko urteetan moduan, aurten ere jostailuak bilduko dituzte Derion, beharrianak dituzten familien artean banatzeko. Jostailuak abenduaren 10era arte eraman ahalko dira Kultur Birikako biltegietara hurrengo ordutegi honen barruan: barikuetan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta gainerako egunetan, 11:00etatik 13:00etara. Gainera, jakinarazi dutenez, abenduaren 6an, 8an eta 9an ez da jostailurik jasoko, biltegiak itxita egongo dira eta. Bestalde, jostailuak abenduaren 11tik 22ra banatuko dira. Ekintza antolatu dute Derioko boluntario gazteek, Emaús Fundazioak, Apnabik, Novisi elkarteak eta Derioko Udalak.



## Zamudiok bi gazte langabetu kontratatuko ditu

Zamudioko Udalak jakinarazi duen moduan, bi gazte langabe kontratatuko ditu administrazio eta arkitektura arloetarako. Udalak soldata-kostuen gutzikoaren % 50eko dirulaguntza jasoko du, *NextGeneration* funtsekin finantzaturako "Lehen esperientzia" programaren barruan. Eskaintzak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu eta curriculumak abenduaren 3ra arte aurkeztu daitezke.

Kasu bietan, praktikaldiko kontratua egingo da, 12 hilabetean eta jardunaldiaren % 100ean. Aurreikusitakoaren arabera, kontratazioa 2023ko abenduaren amaieran egingo da. Lanpostu bietarako eskatzen

diren betebeharrak hauek dira: 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherakoa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izatea, landabezia egotea, eta Lanbiden enplegu-eskatzaile moduan egotea. Bestalde, arkitekto lanposturako hautagaiek Arkitektura Gradua izan behar dute; eta Administrazio Orokorrerako hautagaiek, Zuzenbideko Gradua, Enpresen Administrazio Gradua edo zerikusia duena.

Lan-eskaintzak Lanbidek kudeatuko ditu parekatze automatikoen bidez eta bere webgunearen bitartez. Informazio gehiagorako, EGAZ Txorierrira jo daiteke: 944 536 370.

## 'Hausnarrean' liburua aurkeztuko du Josebe Blancok Marikobason

Abenduaren 1ean, 19:00etan, Josebe Blancok *Hausnarrean* liburua aurkeztuko du Derioko Marikobaso Espazioan. Antzuolako artzainak liburuan azaldu du artzain batek zer bizi duen eta horrek nola zeharkatzen duen. Horretarako, artzainaren imajinario estandarrean ez dagoen artzaina aurkeztu du orrialdeotan: emakumea, euskalduna, ekologista, barazkijalea...; eta bizipenak, hausnarketak, borrokak, ezinak eta pozak kontatu.



## Urte Berria ospatuko dute BANen



Urtarrilaren 1ean, Gabon Zaharreko jaiak egingo dute Txorierriko Baseri Antzokian, urte berriari ongietorria emateko. Jai ederra antolatu dute eta, musika onaz gainera, 01:00etik aurrera izango dute argi-festa, photocall-a eta konfeti-kainoiak; gainera, 03:00etan kanpai-hotsak entzungo dituzte, eta mahatsak baino, gominolak jan. Edukiera mugatua da eta sarrerak 30 euroan erosi daitezke tabernan; prezioaren barne daude bi kopa edo lau kalimotxo edo lau garagardo.

## Botakantu eta Haize-arrosa, Bertokok Gabonetarako prestatutako egitarauaren baitan

Azken urteotan, Bertoko Zamudioko soinu-tresnen elkarteak Txorierritik kanpoko musikariak eta musika-taldeak gonbidatu ditu Gabonetako egitarauaren baitan, doako kontzertua egin dezaten. Haien artean aipatu daitezke Kepa Junkera eta Sorginak, Mikel Urdangarin, Xabi Solano, Kherau, Izargi eta Bide Batez. Aurtun, gonbidapena bikoitza egin dute: batetik, Botakantu taldea; eta bestetik, Haize-arrosa taldea.

Baiona inguruko talde gaztea da Botakantu. Pandemia garaian kaleratu zuten euren lehenengo sortze-lana: Musikaren gaitza kanta: Musikaren gaitza kanta; eta oraingoan disko osoa dakarte besapean: Goizetik gauera. Diskoa 10 abestik osatzen dute eta bertan herri-kantak zein sorkuntza-lan berriak jaso dituzte. Botakantu taldeak diskoa aurkeztuko du abenduaren 16an, 12:30ean, Zamudioko Kultur Etxean. Ostean, ibilalditxoa egingo dute herritik eta eurekin kantatzeko aukera egongo da.

Bestalde, beste musika-talde batzuetan ibilitako musikariek osatzen dute Haize-arrosa taldea; esaterako, Ene Bada taldearen kideek. Horietako bat Edurtzeta Ania da, urte askoan Bertokoko irakaslea izan dena eta oraindik ere soinu-tresnen

elkartearekin lotura duena. Taldeak sentimendu feminista argia du, eta hainbat gonbidatu izan dituzte euren lehen lanean: Ez dugu zor ezer. Diskoa abenduaren 16ean, 20:30ean, aurkeztuko dute Baserri Antzokian.



## Orbek eta Larreak txapela eraman zuten Larrabetzun

a: Idoia Andres

Domekan, azaroak 19, Bizkaiko Binakako Aizkora Txapelketa Mistoa izan zen Larrabetzun, eta Lucia Orbek eta Julen Larreak osatutako bikoteak txapela eskuratu zuen bertan: 15'19". Uxue Asonregik eta David Naredok 18'57" egin zuten; eta Garazi Arrutik eta Hodei Ezpeleta "Bihurri"k, 20'32". Aizkora txapelketaz gainera, erakustaldiak ere izan ziren, hala nola harria jasotzea, lastoa botatzea eta ingudea altxatzea.



# “Sektoretik bizi izatea epikoa da”

LEIRE MILIKUA | Agroekologian aditua

Abadiñarrak *Lur gainean, itzal azpian: emakume nekazariak eta parte-hartzea* saiakera aurkeztu du Larrabetzun azaroan. Milikuak emakume nekazariari aitortza eta ikusgarritasuna eskaintzen die lan horretan, zeina erakusleihoa ez ezik emakume horien bozgorailua ere baita.

*t: Itxaso Marina / a: Inaki Landa Fuentes*

**Gehienok lehen sektoreko emakumei buruz dugun iruditeria ez da zuzena, beharbada; zein da haien erradiografia?**

Askotarikoa, bai adin aldetik, bai jatorri zein formakuntza aldetik. Izan ere, lehen asko hala tokatzen zelako ziren nekazariak, baina gaur egun hala hautatu dutenak ere badaude. Hala ere, erradiografia hori testuinguru batean kokatu behar da, emakume nekazariak gaur egun gutxi dira eta. Gainera, administrazioak eta jendarteak ardurarik hartu ezean, arazo larri baten aurrean egongo gara; sektoretik bizi izatea ez litzateke epikoa izan beharko, eta gaur egun bada. Iruditeria hori apurtzen duten datu batzuk ematearren: landa-eremuen bizi diren emakumeen % 58k ez du harremanik nekazaritzarekin; % 30ek autokontsumorako ekoizten du; eta % 12k nekazaritzatik jasotzen ditu diru-sarrerak denak, gehienak edo zati bat. 2020ko datuak dira horiek.

**2021eko datuen arabera, EAEko nekazaritzako erakundeen % 77 tan botere-karguetan dauden % 50 emakumezkoak dira. Liburuaren hizpideetako bat parte-hartzea dela kontuan hartuta, zer deritzozu datu horri?**

Sektorearen erabakiguneetako parte-hartzea bertan dauden edo egon diren emakumeen bizipenetatik abiatuta aztertu dut; orduan, datu hori entzunda, burura dator kit estatistikak askotan tranpatiak dira, ze paperetako datuetan oinarritzen dira eta paperak dena aguantatzen du. Azken batean, duela gutxi arte datu-bilketek ez dute genero-ikuspegirik izan, eta, hortaz, oso zaila da emakumei dagokien argazkia hortik egitea. Nik dakidanera

arte, ez da benetako jarraipena egiten eta ez da horretarako baliabiderik jarri. Elkarrekin beraiek bidalitako informazioa da oinarria, baina estatistiketako emakume horiek benetan hurbiltzen dira erabakiguneetara? Parte hartze-aktiborik badute? Euren ekarpenak hartzen dira kontuan? Guneak berrikusten ez badira eta erabakigune horietan duela 40 urte sortu zireneko funtzionamenduek eta dinamikek jarraitzen badute...

*“Gutxi arte datu-bilketek ez dute genero-ikuspegirik izan, eta oso zaila da emakumei dagokien argazkia hortik egitea”*

**EAEko 43 emakumeen ekarpenak batu dituzu liburuan. Zer nabarmen-duko zenuke euren testigantzatik?**

Haietako 21 banaka elkarrizketatu nituen, eta gainerakoak, talde-saioetan hartu zuten parte. Modu diferenteak erabili nituen informazioa jasotzeko, banakako elkarrizketetan azaltzen den informazioa ez delako talde-saioetan azaltzen, eta alderantziz. Nolanahi ere, emakume gehienak bat datoz sektorea mundu maskulinizatu moduan ulertu den ideiarekin, esfera publikoan gizonak egon direlako: ferietan, tratuetan, ordezkartzan... Emakumeak, berriz, bigarren planoan egon dira, baina hori ez dator bat emakumeek egunerokoan egindako lanarekin, askotan jardueraren biziraupenerako giltzarria zena.

*“Indarkeria sinbolikoak gure jendartearen eremu guztiak zeharkatzen ditu, baita lehenengo sektorea ere”*

**Indarkeria sinbolikoaz ere bazabiltza liburuan.**

Indarkeria sinbolikoak gure jendartearen eremu guztiak zeharkatzen ditu, baita lehenengo sektorea ere. Azkenean, sistema heteropatriarkalean sozializatuak izan garen heinean, indarkeria moduan identifikatzen ez dugun indarkeria bat dago, eta hori hain zuzen da sistema heteropatriarkala iraunarazten duena eta emakumei pentsamendu-kategoria negatiboak eta gizonei pentsamendu-kategoria positiboak ematen dizkiena; hau da, batzuk prestigioarekin lotzen ditu, eta beste batzuk, desprestigioarekin. Ulertu beharra dago sektorea zerbait osatuago baten parte dela.

**Eta zein da eragile bakoitzaren erantzukizuna, emakume baserriarrari bere lekua aitortzeko orduan?**

Hor denok dugu zer egin, baina bakoitzak beretik. Emakume horien beharrak eta aldarriak entzuteaz gain, erakunde publikoek, esaterako, ekintzetara pasatu behar dute, azken urteetan makina bat diagnostiko egin diren arren, ezer gutxi aldatu da eta. Ondorioz, emakume baserriarraren kontrako efektua sortzen da: erakundeak haiengana hurbiltzen dira euren egoeraz jakiteko, baina hori diagnostikoan edo argazkian gelditzen bada, emakumeek ez dute sobera ez energiari, ez denborarik gauza bera behin eta berriro



## Hurbiletik

Leire Milikua Larramendi (Abadiño, 1985) arkitektoa da, eta agroekologian eta genero-berdintasunean aditua. Ikerketa-lerro nagusitzat ditu, besteak beste, elikadura-sistemak, landa-eremua eta herritarren parte-hartzea. *Lur gainean, itzal azpian* emakume nekazariek eta parte hartzea Susa argitaletxeak *Lisipe* bilduma feministaren baitan argitaratu eman duena. Milikuak berak gaztelaniara itzuli du lana, eta hori consonni argitaletxeak kaleratu du *El origen del mundo* bildumaren barruan.



errepikatzen. Sektoroko eragileek, bestalde, berrikusi behar dituzte euren funtzionamendua eta egiturak, orain arteko profil hegemonikoaz gainera, bestelakoei ere lekua egiteko. Eta gizonei, azkenik, erantzukizuna eta aliantzak eskatu behar zaizkie, eta toki egin behar denean horretarako prest egon daitezela.

### **Landa-eremuari begiratzeko diogun modua aldatzea beharrezkoa dela azpimarratu duzu askotan, zergatik?**

Begiradak nonbaitetik abiatzen direlako beti, nonbaitera; eta "nondik" horren kontzientzia hartzea beharrezkotzat jotzen dut. Adibidez, EAEko biztanleriaren

ia % 90 landa-eremutik kanpo bizi da, baina landa-eremua EAEko azalaren ia % 90 da; hau da, biztanleriaren % 90 azalaren % 10ean bizi da, eta alderantziz. Hirigunetik edo herrigunetik abiatutako begirada izanda, % 90 horrek ez du landa-eremua bizitzeko edo lan egiteko leku moduan ikusten, euren aisialdia emateko, naturan izateko... leku moduan baizik. Eta harrigarriagoa dena: ez dute ikusten euren eguneroko elikagaiak sortzeko eremu bezala, baina bai, esaterako, energia- edo garraio-azpiegitura handiak jasotzeko eremu bezala. Hor badago zer hausnartu, nire ustez.

## Erabili meloia

### Ez egin erosketa oldarkorrik

#### Kontsumitu buruarekin

#### #KontsumitzenJakin



# “Ezinezkoa posible bihurtzea gustatzen zait”

JORGE BARRENA MARIN | zinema amets

Hogeita zazpi urteko zamudioztarrak garun-paralisia du, baina hori ez da oztopoa bere grina handiaz gozatzeko: zinemaz. Hori bere zaletasuna da ezaguera zuenetik, eta kamera baten atzean zuzendari ibiltzeko ametsa izan du beti. Hori dela eta, gidoi- eta zuzendaritza-ikastaroa egin du, eta dagoeneko hainbat gidoi ditu idatzita; egun batean egia bihurtzea espero du.

*t: Itxaso Marina*

**Norengandik edo nondik datorkizu zinemarako zaletasuna?**

Errua aitarena da. Egun batean, zazpi urte-edo nituela, Bilboko Zazpi Kaleetatik pasieran genbiltzan eta bat-batean buelta eman zuen eta DVDen denda batera sartu zen; antza, zerbait ikusi zuen... Dendatik Marx anaien *Una tarde en el circo* filmarekin ateratu zen. Groucho ikusi nuen bibote aldrebes horrekin... eta boom! Ondoren, Charles Chaplinen *Tiempos modernos* pelikula ikusi nuen eta errematea izan zen.

**Film horrek hain zuzen piztu zizun kamera baten atzean egoteko gogo. Zergatik?**

Zenbait gauzarengatik: istorioaren oinarriagatik, Charloten umore-senagatik eta istorioa bakarrik irudiak erabilita kontatzeko moduagatik. Inoiz ez da hainbeste esan ezer esan gabe.

**Zerk erakartzen zaitu zinematik?**

(Kar-kar). Magikoa da: aretoa ilunpetan eta pantaila. Ez dago azalpenik; eta, gainera, ez dut azalpenik egotea nahi.

**Zer da zinema zuretzat?**

Edozein gauza izan daiteke: kritika soziala izan daiteke, baina dibertsio hutsa ere bai... Edo biak! Zinema gozatzea da.

*“Zinema edozein gauza izan daiteke: kritika soziala izan daiteke, baina dibertsio hutsa ere bai”*



## “Zuzendari bakar bat aukeratu behar izanez gero, zalantza barik, hori Steven Spielberg izango litzateke”

Mota guztietako zinema gustatzen zaizu: klasikoa, suspensekoa, akziokoa... Nolanahi ere, genero bat beste bat baino gehiago gustatuko zaizu...

Bada, egia esan, ez. Adibidez, *Mision imposible* sagako azken pelikula ikusi dezaket, eta haren ostean, *Mamma mía!* Denetatik ikasten da. Denetarik ikusi behar da, eta disfrutatu!

**Eta badakigu zuzendari asko gustuko dituzula... Baina zein da zure kutuna?**

Zergatik egiten didazue hau? (kar-kar). Ama ala aita aukeratu behar dudala esatea bezalakoa da... Christopher Nolanek, Peter Jacksonek, George Lucasek, Fritz Langek, Alfred Hitchcockek... egiten duten zinema asko gustatzen zaidan arren, zuzendari bakar bat aukeratu behar izanez gero, zalantza barik, hori Steven Spielberg izango litzateke. Gehien gustatzen zaidana da: umearen arima duen gizona da eta horrek liluratu egiten nau. Gainera, ni bezala, Hergéren zale amorratua da... Ea, ezinezkoa da nik gogoko ez izatea. Zuzendaria baino, ametsen sortzailea da Spielberg; istorioen narratzailea. Eta beste inork ez du jakin zine naturalista eta zine

fantastikoa nahasten... Spielberg taldekoa naiz, beti!

**Zinemarako grinak bultzatu zaitu gidoiaren eta zinema-zuzendaritzaren ikastaroa egitera.**

Momentuz bakarrik egin ditut eskolarako lanak. Gaur egun, nire azken gidoiaren *storyboard*-a prestatzen nabil eta ezin dut hari buruz ezer kontatu, “labean” dago eta. Baina laster izango duzue haren berri.

**Stop Motion animazioarekin eta efektu bereziekin ere ausartu zara.**

Betidanik gustatu zait ezinezkoa posible bihurtzea, eta alegiazko munduak sortu. Horregatik gustatzen zait hainbeste efektuen mundua... Hala ere, benetan lilurutzen nautenak dira efektu praktikoak; hau da, setean bertan egiten direnak: maketak, *animatronic*-ak, makillajea, ... Kroma

erosi nuen eta asko gustatzen zait efektuak egitea.

**Zein motatako pelikulak zuzentzea gustatuko litzazuke?**

Denetarik: zine beltza, fantasia, zientzia-fikzioa... Baina batez ere abenturazko zinema gustatzen zait.



## Eredurik ez

Esan moduan, zamudioztarrari alegiazko munduak sortzea gustatzen zaio. Horregatik, zinemaz gainera, beste zale-tasun bat du: marrazkigintza. “Txikitatik gustuko dut marraztea, gehienbat karikaturak eta komikiak”. Zaletasun horrek bultzatuta, eskola jasotzen du arte- eta diseinu-eskola batean. Duda barik, motibazio- eta hobetze-eredua

da, nahiz eta bera ados ez egon. “Ez dut inoiz eredurik izan nahi; ondo egiten dudana eta gustatzen zaidana egiten ahalegintzen naiz, besterik ez”. Lagatzu Zamudioko euskara elkartearen eskutik, *Inguruko berbak* egitasmoan parte hartu zuen, eta liburuaren irudiak marraztu. “Egia esan, egitasmoak ustekabeen harrapatu ninduen, baina marraztea beti gustatu zaidanez, aukera izan zen niretzat”.

**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86

**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

**Alaia**

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktua

Taller, 5  
48170 Zamudio  
946 850 585

Arantza Amondarain Lasa  
Ginekologoa

Txorierri etorbidea, 9-4,  
413. bulegoa  
48160 Derio

Telefonoa eta faxa  
94 454 44 98  
a.amondarain@euskalnet.net

**ArtileArtean**

Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

**TXORIERRI**  
**Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 SONDIKA  
944 711 282  
info@inmobiliariatxorierri.com

yedra  
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

# Mundu *rupestra*

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Harkaitzetan egindako koba artifizialak eta hobiratzeak hartzen ditugu *rupestre* moduan. Gure inguruan bakan bat baino ez badago ere, nahikoa da mesetara igotzea, Araba aldera, hainbat koba artifizial eta hilobi aurkitzeko. Kapitulu berezia merezi dute. Pentsatzen da koba hauek hasierako ermitak zirela, bere funtzio nagusiak erlijioarekin zerikusia zuen eta; hala ere, geroago bizilekutzat ere erabili ziren.

Arabian ehundik gora aurkitu dira; haietako asko, Trebiñu inguruan. Aipagarrienak dira Faidoko, Lañoko eta Markinezeko kobak. Gaubea inguruan ere ederrak daude, esate baterako, Pinedon eta Corron. Batzuk gela bakarrekoak dira, eta beste batzuek gela txikiagoetara zabaltzen den gela handia dute. Horiek zulatuta daude, eta hori da garai

batean egurrezko egituraren bat zuten seinale.

Koba askotan, edo zuzenean harkaitzetan, gorpuak ere hobiratzen ziren, harrin bertan zizelkatutako hobietan hain zuzen. Baliteke garai batean hobietan estalkia ipini izana, baina horiek aspaldian desagertu ziren. Tamaina guztieta-koak aurkitu ditzakegu: handiak, ume txikiak... Sarritan gizaki-forma dute, eta, ahal dela, oinak ekialdera begira.

Aurreko lerroetan aipatu dugun moduan, gure inguruan ez dago horrelakorik. Adibidez, Argiñetakoak (Elorrio) ez daude harkaitzetan bertan landuta; hara eramane ziren. Bizkaian, Gamiz-Fikan dago salbuespen bakarra: Atxispeko San Pedro ermita izan zenaren ondoan bi hobi ikusi daitezke gaur egun, nahiz eta indusketa arkeologikoetan besteren bat aurkitu zen; adituaren arabera, IX.-XI. mendeetakoak dira. Lekua bisitatzea merezi du.





## Ibilbide proposamena


Fikakoelizarenaurreanhasikodugu zortzi km-ko ibilbidea. Hegoalderantz egingo dugu, Mungiatik Larrabetzura doan errepidea gurutzatu, eta beste aldetik jarraituko diogu bideari. Burdin Hesiaren Memoria Ibilbidea adierazten duten seinaleak topatuko ditugu noizbehinka; guk Atxisperako bidea seinalatzen dutenei jarraituko diegu, hura gure lehen helmuga da eta. Bide asfaltatuetatik beti ezkerretara egingez, kilometro eta erdira, errepide nagusian agertuko gara berriro. Ber-

tatik eskuinetara 100 m egin ostean – kontuz, trafikoarekin!-, ezkerreko bidea hartuko dugu; 800 metrora gurutze bat topatuko dugu. Kartelak adierazten duenez, eskuinetik, erreka gurutzatu eta erdi jausita dagoen baserri baten ondotik, lurrezko pista hasten da, aldapan gora 700 metro eginda amaituko dena. Eskuinetara begiratu, eta goian harkaitz batzuk eta Atxispeko San Pedro ermitaren arrastoak ikusiko ditugu.

Azken igoera malkartsua da, astiro egitekoa. Ate dotoretik sartuko gara ermita barrura; bertan ikusten diren zuloak indusketa arkeologikoei eragindakoak dira.

Kanpoaldean, apur bat gorago, lehen hobia aurkituko dugu harkaitzean zizelkatuta. Aurrera egin, gorago, eta bigarren hilobia topatuko dugu. Normalean urez beteta izaten dira; eta oinak, jakina, ekialdera begira. Hasierako ermita eta hilobiak IX.-XI. mendeetakoak ei dira, eta indusketetan beranduagoak diren hezurak, txanponak, zeramika... aurkitu dituzte. Baita 36ko gerraren arrastoak ere.

Etorritako bidetik egingo dugu atzera, kontu handiz, bereziki bustita badago. Asfaltora helduta aurrera egingo dugu, eta 300 metrora, eskuinetara. Ez da erraza imajinatzea bertan, eskuineko soloaren erdian, aspaldian San Joan eliza zegoela; gaur egun landarediak estalita dago. Aurrera egin, eta erreka pasatzerakoan ezkerretara begiratu dugu: metro gutxira harrizko zubitxo ederra dago, zutik oraindik. Errepidez errepide jarraituko dugu, Fruizeko lurretatik. Bidegurutzetean ezkerreko bidea hartuko dugu beti, Botiola auzotik pasatuko gara, eta Fika amaituko dugu. Eliz aurrean ikusten dugun ermita kanposantua izan zenaren kaperda da. Eliza barruko apalategi batean daude auzokideek Atxispeko San Pedro ermita garbitzen zebiltzala topatutako zenbait objektu. Marik eliza gogoz zabalduko digu, 946 153 261 telefono-zenbakira deituta.




**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzura  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**ZAMUDIO-DERIOKO  
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



RPS: 184/10

**TIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**PATXI  
KOOP**

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nombur polygona | Etxeare 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel. 944 522 587 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

# Gozamenak ez zaitzala gaixotu

“Ez egin match STI-ekin”. Horrela dio udan abian jarri zen sexu-transmisiozko infekzioei buruzko kanpainak, eta abenduaren 1ean IHESaren kontrako eguna denez gero, egoki ikusi dugu gai honen inguruan hitz egitea.

## Zer dira STIak?

Sexu-transmisiozko infekzioei buruz hitz egitean, gehienetan genitalen bidez transmititzen diren infekzioez ari gara. Arrisku-praktika ohikoenak penetrazio baginala eta anala, eta genitalen edo uzkiaren aho bidezko estimulazioak dira. Dena den, genitalaz aparte, badira beste era batzuk infekzio horietako batzuk transmititzeko; adibidez, GIBA (HIESA eragin dezakeen birusa) espermaz eta baginako jariakinaz aparte, odol bidez edo bide perinatalaren bidez (haurdunaldian, erditzean eta edoskitzean) transmititzen da.

## Hain kezagarria al da STIen bilakera Euskadin?

STIek aurrera egiten dute Euskadin, kontrolik gabe, gehienbat gazteen artean: hamar diagnostikotatik zazpi 34 urterainoko gazteengan ematen da, lau kasutik bat 15-24 urte bitarteko gazteak izanik.

Infekzio horiek oso gogaikarriak izan daitezke, baina, gainera, antzutasuna, gorputzeko beste organo batzuei eragiten dieten infekzio larriak, abortuak eta minbizi mota batzuk eragin ditzakete, besteak beste.

Tratamendurako botikak existitzen dira, baina kontuz! Tratatzera eta sendatzea ez da gauza bera. Infekzio guztiak ez dira sendatzen (adib.: GIBA), horietan botikak birusaren aurrerapena geldiarazteko, sintomak murrizteko edo kontagioa prebenitzeko erabiltzen dira.

Hau guztia dela eta, oso garrantzitsua da infekzioen transmisioa prebenitzea.

## Praktika seguruak: disfrutatu dezaket arriskurik gabe?

Arrisku faktoreak murriztu daitezke hurrengo estrategiak erabiliz:

1. **Preserbatibo maskulinoa edo femeninoa erabiliz (baina ez biak batera!).** Penetrazio baginala, anala edo felazioa egin nahi izanez gero, metodo horietako

bat erabiltzea erabakirik egokiena litzateke. Latexezkoak izan ohi dira, baina badira beste material batzuetakoak ere. Gainera, batzuek zapore edo ehundura bereziak dituzte, eszitazioa pizten lagungarriak izan daitezkeenak.

2. **Latex-hesia (edo poliuretano-hesia) erabiliz:** cunnilingusean (edo anilingusean) eman daitezkeen infekzioak prebenitzeko lagungarriak dira. Metodo hau zuzenean erosi dezakezu edo preserbatibo bat eraldatuz sortu.

3. **Infekzio-arrisku gutxiko praktikak eginez:** Genitalen masturbazioaz aparte, beste hamaika praktika daude, aukeratu gustuko duzuen gorputz atala, eta egiozu gustuko duzuen ekintza. Ezpainak, lepoa, belarriak, izterrak, sabelaldea, oinak, ipurdimasailak, bularrak... hozkatu, laztandu, miatzatu, atximurkatu, astindu, putz egin... Eman irudimenari!

## Zer egin STI bat dudala susmatzen badut?

Honako egoera hauek STI bat izateko arriskua duzula adieraz dezakete:

- **STIen sintomak igartzean:** sekrezio genitalak izateak (batez ere berde, hori edo zuriak), genitaletan, ahoan edo uzkian, zauriak, lesioak edo garatxoak izateak, edo txiza egitean azkura izateak, besteak beste, STI bat dagoela adieraz dezakete. Baina kontuz! Batzuetan ez dagobegi-bistako sintomarik!

- **Pertsona batekin arrisku-praktikak izatean.** Ezin dugu jakin gure bikotekideak STI bat daukan. Zure bikotekidearekin konfidantza izateak ez zaitu arriskutik libratzen! Izan ere, batzuetan, infekzioa duenak ere ez daki gaixotasuna duenik, ez duelako inolako sintomarik.

STI bat izan dezakezula uste baduzu, jar zaitez harremanetan zure familiako medikuarekin, edo zuzenean hitzordua eska dezakezu Osakidetza sexu-transmisiozko infekzioei buruzko kontsulta espezifikoa. Adibidez, Bizkaian Etxaniz Suhiltzailearen osasun-zentroan dagoen horretan (94 600 69 69).

Gainera, farmazia batzuk GIBaren test azkarrak egiten dituzte, eta analisari, emaitzari, eta prebentzio-neurriak hartzeko beharri buruzko informazioa eskaintzen dute.


## GIBaren test azkarrak



# EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN

2023 · 2023 · 2023 · 2023

## AURTEN SONDIKAN!



**ESKOLAK:** 09:30 / 11:00 | KIROLDEGIAN

AZAROAK

**28 URPEKAKARIAK**  
ANTZEZLANA. 7-8-9 URTE

AZAROAK

**29 GORA BIHOTZAK**  
EMANALDIA. EIDABE.  
4-5-6 URTE

ABENDUAK

**1 EUSKARAOKEA!**  
10-11 URTE

ABENDUAK 19:00 | SONDIKAKO KULTUR ETXEAN

**1**

**BERTSO SAIOA.**

**BERTSOLARIAK:**

MAIALEN AKIZU, ETXAHUN LEKUE,  
JON MAIA ETA JONE URIA

**GAI JARTZAILEA:**

IDOIA ANZORANDIA

\*DOAN, AFOROA BETE ARTE



20:15 | SONDIKAKO KULTUR ETXETIK HASITA

**TABERNA IBILTARIA**

ABENDUAK 19:30 | SONDIKAKO KULTUR ETXEAN

**2**

**FUTBOLISTOK.**  
**BAKARRIZKETA**

ZUHAITZ GURRUXAGA

\*DOAN, AFOROA BETE ARTE



ABENDUAK 3 SONDIKAKO KULTUR ETXEAN

**3**

11:30 | **MAGIA IKUSKIZUNA**  
**FAMILIAN.** ALAIN ZULAIKA

\*DOAN, AFOROA BETE ARTE

12:30 | **MAGIA TAILERRA.**  
ALAIN ZULAIKA

\*DOAN, AFOROA BETE ARTE

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



# “Erasoak gertakizun jarraitu moduan tratatu behar dira hedabideetan”

MARIA GOROSARRI GONZÁLEZ | metakazetaria

Zamudioztarra Kazetaritza Fakultateko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ikertzaile ere badabil arreta kalitateko kazetaritzan eta komunikazio feministan ipintzen duela. Lan-ildo horiek hain zuzen ere izan ditugu berarekin hizpide, baita bere liburuan, *Contra la banalización del feminismo*, aztertzen dituen zenbait kontu ere.

*t: Itxaso Marina*

## Askorentzat hitz ezezaguna delakotan, zer da metakazetaritza?

Kazetaritzaren inguruko kazetaritza da eta ikertzen du albisteek zelan funtzionatzen duten, zer ateratzen den eta zer ez... eta batez ere nola. Hori zuzentzeko eta gizartean hobeto ulertzeko eta eragin jakin bat edukitzeko, bideratu, eta proposamenak egiten dira. Zergatik? Bada, batzuetan ikasita ditugun jarrerak nahi barik errepikatzen ditugulako, nahiz eta, beharbada, haiekin ideologikoki bat ez etorri. Adibidez, matxismoa sostengatzen dituen hainbat praktika daude kazetaritzan, eta hori zuzentzeko konponbide profesionalak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen da.

## Kalitateko kazetaritza da hain zuzen zure lan-ildoetako bat. Zeintzuk dira bere ezaugarriak?

Lehenengo eta behin, adierazi behar da informazioa nork edo zein erakundek zabaldu duen, ze informazio guztien atzean beti dago nahi edo helburu bat. Iturria ere esan behar da, eta ia bakarrik adierazpenak diren edo atzean gertakizun bat dagoen. Izan ere, askotan topatzen dugu “ez dakit nork ez dakit zer” esaten duela eta hori gero ez dela betetzen. Niri gertatu zait prentsaurreko batera joan, eta alkate

*“Gehiago entzuten dugu kanpoan gertatu den zerbait, Iparraldean gertatutakoa baino”*

batek bertan esatea “ez dakit zer” egiteko asmoa zuela, baina aurrekontuetan idatzita ez egon; are gehiago, 20 urte pasatu dira eta ez da egin.

## Zeintzuk dira euskarazko hedabideen mugarik handienak?

Gertuko informazioan oso onak gara, euskararen mundutik zabaldu baitugu esparru oso bat eta komunitate oso bat eratu da. Hala ere, Estatu Batuetara begira gaude eta han ez dugu zuzeneko iturrik; albiste-agentzia batzuen menpe gaude... ETB1era, adibidez, Estatu Batuetako eta Espainiako albiste gehiago heltzen dira, bertoko albisteak baino. Gehiago entzuten dugu kanpoan gertatu den zerbait, Iparraldean gertatutakoa baino.

*“Gezur baten eragina hura ezeztatzen duen informazio landuarena baino handiagoa da”*

## Erabiltzaileentzat ez ezik kazetari-ontzat ere informazio-iturri dira gizarte-sareak; arriskutsua da oso.

Gizarte-sareek bat-batekotasuna dakarte, eta mezuari zuzenean erantzuten zaio, baina ez dago astirik jakiteko egia den, nork bidali duen... Azken batean, kazetarion sinesgarritasuna dago jokoan, eta erabaki behar da bat-batekotasun horretan sartzen garen eta informazioa kontrolatzen ez dugun ala hor sartzen ez garen eta astiroago funtzionatzen duen kazetaritza egitera behartuta gauden,

*“Emakumeok salatzen dugunean «ustez» berba bi bider sarriagotan erabiltzen da, gizonek salatzen dutenean baino”*

eta ondorioz, jendearengana heltzen ez garen. Izan ere, egiaztatu da gezur baten eragina hura ezeztatzen duen informazio landuarena baino handiagoa dela. Eztabaida horretan dago, ziztada batean zabaltzen den desinformazioari nola egin aurre, ze orain arteko kazetaritza patxada-tsuak ez du eragin bera.

## Komunikazio feminista ere lan-ildo duzu. Nola heltzen die kazetaritzak emakumeei lotutako gaiak?

Emakume bati egiten dioten erasoak, esate baterako, emakume guztiok menderatzeko mezua da, eta oso ondo ulertzen dugu. Baina hedabideek ez dute ikuspegi hori barneratzen, eta erasoak berri ematen dute haiek emakumea ordu txikietan bakarrik ibiltzen zelako edota neurrik hartu ez zuelako gertatu baziren moduan. Orduan, aditzera ematen dute emakumeok txarto egiten dugula guez ibiltzen bagara, edo jaietara joaten bagara... esan beharrean erasoak gertatzen direla Estatuak ez dituelako gure esku-bideak eta osotasun fisikoa babesten.

## “Ustezkokeriak” ere aztertu duzu.

Hogei urtean delituak aztertu eta egiaztatu nuen emakumeok salatzen dugunean “ustez” berba bi bider sarriagotan



CONTRA LA  
BANALIZACIÓN DEL  
FEMINISMO  
MARIA GORDOSARRI

erabiltzen dela, gizonak salatzen dutenean baino. Hau da, gizonak jasotzen duen eraso «gertatzen» da, baina emakumezkoak jasotzen duena «ustezkoa» da; hala ere, eraso gertatu da eta, izatekotan, erasotzailea izango da ustezkoa. Orduan, hor dago emakumeon sinisgarritasuna zalantzan ipintzen den konnotazioa. Beste alderdi bat da emakumeon aurkako indarkeriaren erotizazioa.

### Erotizazioa?

Adibidez, eztabaida izan nuen egunkari bateko zuzendariarekin, idatzi zutelako emakume bat parke batera eraman zutela eta han sexu-harremanak izatera behartu zutela. Eraso ez da sexua, eta ezin da inor sexu-harremanak izatera behartu; behartuz gero, ez dira harremanak. Zuzendariak, gizona zenak, ez zuen ulertzen... Egia esan, ez dut uste berak horrela pentsatzen zuenik, baina, konturatu ezean, aditzera ematen da emakumeen aurkako eraso ez dela horren larria; kexatuko ez bagina, gauza arina izango litzatekeela. Eraso eta sexua berdintzen badira, fokua emakumearengan ipintzen da berriro.

### Zeintzuk dira erronkak?

Erasorik gertatzen bada, hura ez tratzea behin gertatu den gauza moduan, gertakizun jarraitu moduan baizik. Azken batean, ez da gizon bakar baten eraso, baizik eta feminismoaren aurrerapenak gelditu nahi dituzten gizon batzuen egintza. Anaidia horrela ulertzen dute. Nolanahi ere, feminismoak aurrera egiteko bide nagusian gizonak egin behar dute, eurek apurtu behar baitute onurak ekartzen dizkien anaidi hori. Horregatik interesgarria iruditu zait aurtengo greba feministara gizonak ere deitu izana.

**Feminismoz gabiltzala, badirudi aspaldion feminista izatea modan dagoela. *Contra la banalización del feminismo* liburua duzu idatzita; modak hutsaltzen du feminismoa?**

Horixe bera izan da liburuaren egitekoa. 2012an Berlinera joan nintzen bizi izatera eta garai hartan oso gutxi ginen feminista; gainera, ospe txarrekoak ginen, gizonen kontra beti... Baina itzuli nintzenean ikusi nuen Euskal Herri osoa zela feminista; hala ere, horrek ez zuen inolako aldaketarik ekarri. Liburua idazten hasi nintzen eta gako nagusia izan da identitate feminista eta kontzientzia feminista bereiztea; hots, gauza bat da



*“Besteak beste, identitate feminista eta kontzientzia feminista bereizten ditut liburuan”*

zure burua feministatzat hartu eta helburuekin bat etortzea, eta beste gauza bat da zure egunerokotasunaren arlo guztietan feminismoa egin, eragilea izan, eta matxismorako abagunerik ez uztea.

**Feminismoa hutsaldu dezaketen beste arrisku batzuk aipatzen dituzu liburuan, eta haietako batek Martxoak 8aren genealogiarekin du zerikusia.**

Nazio Batuen Erakundeak Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna izendatu zuenetik, Estatu Batuetan izandako hiru gertakizun hartu dira erreferentziatzat, eta gaur egunera ailegatu dena da 1911ko martxoaren 25ean alkandora-lantegi batean izandako sutea. Baina, egia esan, Martxoaren 8aren jatorria soviet iraultzak martxan ipinitako gertakizun batean dago: San Petersburgoko emaku-

meek eta langileek manifestazioa egin zuten tsarraren kontra 1917an, eta lau egunean lortu zuten, alde batetik, tsarrak abdikatzera, eta bestetik, emakumeentzako boto-eskubidea. Clara Zetkin eta Rosa Luxemburg sozialista alemaniarrek egun hori finkatu zuten egutegian, eta 1918tik aurrera hasi zen Europan ospatzen. Beste aldetik, orain euskal hedabideetan modan ipini da Santutxuko puru-lantegiko emakume langileek 1889an egindako matxinada aipatzea, baina horrek ere ez du zerikusirik.

**Atsotitzak dioenez, zenbat buru, ha-inbat aburu. Feminismoaren barruan iritzi kontrajarriak daude zenbait gairi buruz, eta horiek ere aipatu dituzu.**

Prostituzioari buruz, esaterako, ez dut berbarik egiten, ezagutzen ez dudana errealitatea delako. Gainera, uste dut pertsona batek bizimodua prostituziotik atera nahi badu Espainiako estatuan bidea baduela: autonomoetan alta hartu eta erretirora arte kotizatu. Aldiz, LGBTI mugimenduak eta feminismoak zer zubi-lan duten aztertu dut, eta trans legea. Argudioak banan-banan egiaztatuz joan naiz, eta, nire sorpresarako, batzuk ez dira guztiz egiazkoak.



### Adibidez?

Bada, Elaine Thompson, esaterako, 100 metro lauen errekorra hautsi zuen birritan, baina 14 urteko mutiko batek berak baino azkarrago korrika egiten zuen baieztapena zabaldu zen. Albistea topatu nuen eta gauza zen Kuala Lumpurreko mutiko bat Asia osotik zebilela korrika, fenomeno moduan, eta, nire ustez, halako baieztapen bat zabaltea ez da eztabaidari on egiten dion datua, batez ere ez delako oso datu garbia. Ze aditzera ematen da 14 urteko edozein mutil errekorra duen emakume korrikalariaren parean dagoela, gizona delako. Horri dagokionez, gainera, COIk ez du irizpiderik, antza, testosteronak ez baita nahikoa esateko zergatik gizonen emakumeek baino indar gehiago duten edo azkarragoak diren; izan ere, gizon guztiak ez dira emakume guztiak baino indartsuagoak edo azkarragoak.

**Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea, hala ere, guztien aldarria da.**

Bai, eta lotzen gaituen horretan arreta jartzea pentsatu dut, guztiok ados gaudelako hurrengo honetan: behar-beharrezkoa da gure biziraupenerako eta bizitzaren kalitaterako; biak arriskuan daude eta. Eskubidea aitortuta dugun arren, ez dago baliabideetan bermatuta. Horregatik, hedabideen kontakizuna funtsezkoa da matxismoa gelditzeko eta gizartea sentikor bihurtzeko. Neska gazteak gogor datoz horretan, zelako bizi-modua nahi duten argi dutelako. Oso matxismo oldarkorra ezagutzen dabilta,

*“M8aren jatorria soviet iraultzaren gertakizun batean dago: tsarrak abdikatzear gainera, emakumeentzako boto-eskubidea lortu zen”*

eta aurrean eraso bidez euren nagusitasun soziala babestu nahi duten gizonak dituzte. Biolentzia fisikoa zer den, bestalde, oso argi dugu; hala ere, egoera jakin batzuk salatzea, edo salatu barik, distantzia hartzea gogorra da, tartean familia- edo lagun-egitura dagoelako. Adibidez, sozialki erasotzaile batek Euskal Herrian ez du koadrilarik galtzen; egitura horri aurre egitean, nork ordaintzen du injustiziaren prezioa? Nire ustez, bestelako indarkeriak antzematen hasiko gara, eta haiekiko sentikor bihurtzen. Bestelako indarkeria horiek badute gure egunerokotasunean indarra, baina ez dira ikusten eta orduan oraindik ez dute egilerik.

*“Bestelako indarkeriak antzematen hasiko gara, eta haiekiko sentikor bihurtzen”*

*“Hedabideen kontakizuna funtsezkoa da matxismoa gelditzeko eta gizartea sentikor bihurtzeko”*

**DANONTZAKO IREKITAKO INSTALAZIOAK**

- KAFETEGIA ·
- 4 PADEL PISTA ·
- 2 PISTA ESTALIAK
- 2 PISTA ESTALI GABEKOAK

**ERRESERBAK : 687 775 683**

**“DERION, DANONTZAKO IREKIA PARKE TEKNOLOGIKOTIK 5 MINUTURA”**

Gaztañatxu Kalea 16, Derio  
www.clublandabbarri.es

**Gabon ZORIONTSUAK**

OPA DEUTSUEGUZ

**GABONETAKO 3 MENU BEREZI**  
“Zatoz laneko, kuadrilako edo familiako bazkari/afari gurekin ospatuten”

- KARTA
- TXULETOI & BURGER DRY AGED  
By Canales
- ZAPATU TEMATIKOAK
- ETXEKO POSTREAK
- ARTISAU GARAGARDOA  
By Elizegi
- ARDO KARTA BEREZIA  
Ta askoz gehiago...

**ERRESERBAK : 687 775 683**  
( Bertan jateko edota enkarguak jasotzeko )

ESKANEATU GURE ESKAINTZA :

*“Emakumeen greba historikoek gure gizartearen norabidean eragin zuzena izan dute”*

**Greba feminista orokorrera deitu da azaroaren 30erako; lorpen garrantzitsu askoren atzean emakumeak izan dira.**

Bai, emakumeen greba historikoek gure gizartearen norabidean eragin zuzena izan dute; esaterako, lehen aipaturako Errusiako Iraultzan, baita Frantziako Iraultzan ere... Era berean, 2018tik hona munduan egin diren mugimendu handienak, batez ere Europan, greba feministak izan dira. Feminismoak langileen tresna historikoa –greba– hartu, eta sektore ez produktiboetara zabaldu du; Islandian, adibidez, 1975ean egin zuten. Nire iritziz, asmatu egin da, gizartean dagoen tresna ezagunetako erabili da gizarte osoari dagokion ardura zabaltzeko: zaintza-lana.

**Eta gizarte osoari dagokigunez, gizoni ere deitu zaie grebara.**

Izan ere, zaintza-lana egiteko, berdin dio gizona ala emakumea izateak. Azken batean, norberak bere bizitza-proiektuan hartzen dituen konpromisoak, etxean, lanean... bete behar ditu, eta ez pentsatu sexuaren arabera batek besteak baino dohain handiagoa duela. Gero, gizarte moduan badugu beste ardura bat: nagusiak zaintzea eta sistema publikoa indartzea. Guztiontzako onura da, gainera, gu ere nagusiak izango garela edo edozein momentutan ezgaitasuna etorri zaigulako.

**Zaintza lanetatik harago, zein inplikazio eskatu behar zaie?**

Emakumeen aurkako indarkeria gizonak egikaritzen dute; hortaz, gizonak euren kidearen, anaidi horretako kidearen jarrerak gaitzetsi behar dituzte, eta esan “hau dagoeneko ez da nire kidea, hau egiten duelako”.

*“Emakumeen aurkako indarkeria gizonak egikaritzen dute; hortaz, gizonak gaitzetsi behar dituzte euren kideen jarrerak”*



## Ikertzailea

Maria Gorosarri Gonzalez (Durango, 1978) duela urte batzuk “txorierriartu” zen, eta gaur egun Zamudion bizi da. Zuzenbidean eta Kazetaritzan lizentziatua da, eta Komunikazio Doktore Europarra. Fotokazetaritza feminista irakasten du Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ikertzaile moduan hiru lan-ardatz ditu: albisteen kalitatea, feminismoa eta fotokazetaritza.

Zenbait komunikabidetan ibili da lanean, hala nola ETB1n eta Euskadi Irratian, eta gaur egun kolaborazioak egiten ditu hainbat hedabidetan. Argitaratu dituen lanen artean aipatzekoak dira *ETB eta kalitatea: Alemaniako Länder-etako telebista*

*publikoaren irakaspak* (2018), *Encuadros de la violencia machista: estudio comparativo de las noticias sobre delitos con víctimas* (1996-2016) (2021) eta *El origen del 8M: intereses estadounidenses que banalizan el feminismo* (Pikara Magazine, 2023ko martxoa). Bestalde, 2024ko urtarri-lean “Feminismoa euskaraz ala erdaraz? Hedabideek oker eman dituzten erreferentzia feministak” artikulua argitaratu du *Uztaro* aldizkarian.

luz, *Contra la banalización del feminismo* (2021) liburua bigarrena izan zen Euskadi Sarietan. Gorosarri Arratiko Mankomunitatearekin elkarlanean dabil, eta bertako Berdintasun Sailak proposatuta, heziketa-saioak ematen ditu liburuan jorrazten dituen gai buruz.







# EGUZZKIBEGI IKASTOLA

Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara (0-16) arteko hezkuntza eskaintzen dugun guraso kooperatiba gara, eta kokapen ezin hobean gaude umeen garapena bermatzeko. Euskara eta euskal kultura oinarri izanik, hezkuntza aurrerakoa eskaintzen dugu.



HH 0-2n gela berrituak ditugu, eta horretarako, Piklerren irizpideetan oinarritu gara. Mugimendu libre eta umearen erritmoa errespetatzen dugu momentu orotan, eta HH 3-6 adin tartean Urtxintxa proiektua eta KUKU emozioen programa lantzen ditugu.

Erdigunean ikaslea jartzen dugu, eta bere eta bere familiaren beharrezko kontuan hartuta banakako etxekotzea egiten dugu. Gainera, hasieratik harreman sendoa eraikitzeko, ikasturtea hasi baino lehen banakako batzarrak egiten ditugu elkar ezagutzeko. Era berean, HHn ordutegi malgua eskaintzen dugu, eta haurtzaindegi zerbitzua 07:30etik 17:00etara; oporretan ere zabalik gaude.

Ikastolako langileok, bestalde, etengabeko formakuntza jasotzen dugu. Koordinazio estua dago gure artean, eta dagokion erantzuna ematen diogu aniztasunari, ikaslea eta haren beharrezko erdigunean jarrita.



Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza proiektua dugu, eta DBHko ikasleak konpetentzietan hezi ditugu azken 15 urteotan. Ikastola eleanitza ere bagara: ingelesa HHTik eskaintzen dugu, DBHn arlo bat ingelesez ematen dugu eta DBHko ikasle guztiek frantsesa ikasten dute. 2018. urtetik ikastola jasangarria gara eta urte berean Bidezko Merkataritza ziurtagiria jaso genuen. KIVA ikastola ere bagara eta ikasle eta irakasle taldeak egunero egiten du lan, jazarpena ekiditeko.

Esan moduan, oso argi dugu pertsonak erdigunean daudela, eta, horregatik, adimen emozionalean ipintzen dugu arreta handia. Ikastolako guneak pedagogia aurrerakoien arabera egokitu ditugu, eta DBHko gela guztiak –teknogela eta laborategia barne– berritu ditugu, baita LHko zenbait gela eta jantokia. Gune erosoak, erakargarriak eta egokiak sortu ditugu.

Etorkizunean, euskara izango da gure ardatza eta haren erabilera areagotzeko jarraituko dugu lanean; gainera, Ibilaldia antolatze arduraren izango dugu 2025. urtean. Eraikina zaharbertzen jarraitzen ahaleginduko gara eta, horri lotuta, plaka fotovoltaikoen bidez autokontsumoa sustatu nahiko genuke. Azkenik, Erasmus+ programan parte hartzea ere izango da gure erronka.

# Parte hartzea bultzatu

Azaroaren 27tik abenduaren 3ra bitartean, ekintza-sorta zabala izango dugu Txorierrin Euskararen Eguna ospatzeko. Ekintzak Sondikan egingo dira aurten, eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Alzora Sondikako euskara elkartearen laguntzaz, adin guztientzako ekitaldiak antolatu ditu, txorierritar guztiak euskaraz ederto pasatzeko; are gehiago, herritarren parte-hartzea bultzatuko duten ekintzak izango dira.



Lanku  
www.lanku.eus



EUSKO JAURLANITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEGALDIA DA JARDUNA  
POLITIKA EGIA  
BERNARDINO DE GUTIERRA  
Y PROFESORADUNA

URPE  
KAKA  
RIAK



“Pandemia gaindituta, aurten bereziki ahalegindu gara parte hartzea bultzatzen duten ekintzak antolatzen”, azaldu du Laura Martinezek, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko euskara-teknikariak. Eta hasteko, “Elkarrizketa musikatuak” antolatu dituzte azaroaren 27rako. Derioko Gurea Aretoan, institutuko ikasleak Iker Villa (STR) eta Malentxo Zeberio (Mirua) musikariek in egongo dira eta euren musika-ibilbidea hurbiletik ezagutzeko aukera izango dute; guztira bi saio. “Gazteek bi hilabete daramatzate lanean: ikasgeletara abeslarien materiala bidali dugu, eta hori lantzen dabilta. Gainera, talderen bat musikariek in batera agertokira igotzera animatuko dugu, ea lortzen dugun!”.

Bestalde, eskoletako umeentzako ekintzetan 1.171 ume hartuko dute parte. Ekintzak Sondikako kiroldegian egingo dira eta hara hurbiltzen direnek sorpresa atsegina hartuko dute, lekua aireportu bihurtuko delako eta, hortaz, ume guztiak aireportuan daudela pentsatuko dute; oraingoan euskararako bidaia izango da. “Sondikako eskolako ume guztiak dabilta prestatze-lanetan. Ikasleak bertatik pasatzeko ibilbidea egongo da, *check in* egiteko lekua, hegazkineko laguntzaileak, pilotuak, maleta galduen bulegoa... Egia esan, lan itzela egiten dabilta. Bestalde, seigarren mailakoek aurkezpena egingo dute saio bakoitzean eta horietan aireportuetan gertatzen diren bitxikeriei buruzko esketxak antzetzeko dituzte”. Ohi den moduan, seigarren mailakoek bertsoa ere sortu dute eta hura herri ikastetxe guztietako ikasleei irakatsi zaie, gero, saio bakoitzean, elkarrekin kantatu dezaten.

Azaroaren 28an, *Urpekakariak* antzez-lana izango da 7 urtetik 9 urtera bitarteko umeentzat. Lanku taldearen antzez-lana da eta gidoia Miren Amurizak eta Ane Labakak idatzi dute; lanaren helburua da, modu sotilean eta umoretsuan, umeak beren gorputzari begira jartzea eta aniztasunaz, sexualitateaz, genero-rolaz hausnartu dezaten zirikatzeko. Hurrengo egunean, hilak 29, Eidabe taldearen *Gora bihotzak!* musika- eta dantza-ikuskizuna izango da lau urtetik sei urtera bitarteko

# iko da bereziki

umeentzat; eta abenduaren 1ean, Euskaraokoa, 10 urtetik 11 urtera bitarte-koentzat. "Ikastetxeetara 134 euskal kanta bidali ditugu, ikasleek gustukoena aukeratzeko. Orotara 19 abesti eramango dira agertokira: talde bakoitzak bere abestia aukeratu du eta hori abesteaz gainera, koreografia ere egingo du. Era berean, ekintza honetarako beharrezkoak diren azpiegiturak, esaterako, pantailak, hobetu dira".

## Publiko orokorrarentzat

Barikuan hasita, abenduak 1, eta aste-buru osoan zehar, publiko orokorrarentzako ekintzak egingo dira. "Pandemia aurretik arrakasta handia zuen formatua berreskuratu dugu bariku arratsalderako. Horrela, 19.00etan, bertso-saioa izango dugu Sondikako Kultur Etxean. Gorondaganeko seigarren mailako ikasleek aurkezpena egingo dute, eta oholta gainean ikusiko ditugu Etxahun Lekue, Maialen Akizu, Jon Maia eta Jone Uria; gai-jartzailea Idoia Anzorandia izango da". Bertso-saioa amaituta, Taberna Ibiltariak euskal kantaz beteko ditu herriko txokoak. "Kultur Etxean bertan hasi, eta Sondika osoan ibiliko gara abesten. Kanten letrak

banatuko ditugu parte-hartzaileen artean, guztiok batera abestu ahal izateko".

Zapatu arratsaldean, 19:30ean hain zuzen, Zuhaitz Gurrutxagaren Futbolistok bakarriketa gozatzeko aukera egongo da Kultur Etxean. "Umorezko bakarriketa da, oso ona eta publiko zabalarentzat, gazteentzat zein helduentzat". Domekako goiza, azkenik, magia beteta etorriko da. "Alain Zulaika magoak familiako magia-

ikusbizuna egingo du 11:30ean, Kultura Etxean; eta horren ostean, magia-tailerra egongo da Ludotekan, umeek eurek magia egin dezaten". Ekintza guztiak doakoak izango dira eta Kultur Etxera sartu ahalko da lekuaren edukiera bete arte.

"Jendea etortzea eta ekintzetan parte hartzea espero dugu. Ekintza erakargarriak antolatu dira, adin guztientzat, eta parte-hartzera gonbidatzen dutenak. Azken batean, jendearengan ilusioa piztu nahi dugu, Euskararen Eguna haien eguna dela sentitu dezaten. Izan ere, Euskararen Eguna denona da, eta denok aldarrikatu eta bultzatu behar dugu". Hala izan bedi.



 **ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

  
**Torrealday**

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA MUNGIA • 946 74 45 75

  
**POLITEKNIKA**  
TXORIERRI



**hegan**  
egiteko aukerak

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa  
Escillerato y Formación Profesional

**Eman izena!**  
[www.politeknikatxorierri.eus](http://www.politeknikatxorierri.eus)



# Memoria irudietan

Larrabetzuko Oroimen Historikoaren lantaldeak bultzatuta, sei plaka ipini dira plaza inguruko hainbat eraikinetan. Faxistak 1937ko ekainaren 13an sartu ziren Larrabetzura, eta plaka horietan geroago herrian izandako gertakizunak jasotzen dituzten argazkiak erreproduzitu dira, "larrabetzuarrek eta bisitariek gertatu ze-

naren berri izan dezaten". Argazkiak 36ko gerrari lotutako zenbait argitalpenetan zabaldu ziren, eta Berazategi-Etxebarria artxiboan batu. Argazki bakoitzari irudia azaltzen duen euskaraz idatzitako testua gehitu zaio, baita QR bat ere, azalpenak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez irakurtzeko.

Oroimen Historikoaren lantaldeak ahal-egina egin du plakak gertakizunak izan ziren lekuetan ipintzeko. Horrela, plaketako bat plazako aterpean jarri da; beste bat, udaletxeko sarreran; beste bi, udaletxeko aurrealdeko fatxadan; eta azken biak, etxe jabe-dunetan. Irudiak biniloan inprimatu dira, eta aluminioan itsasi.



## ERREKETEAK ANDRA MARI KALEAN

1937ko ekainaren 13an, Lakarreko, Nafarroako eta Montejurrako erreketen tertzioek, Nafarroako I. Brigadan zeudenak, Larrabetzu okupatu zuten. Irudian, erreketen talde batzuk ikus daitezke Andra Mari kalean zehar. Argazkiaren ezkerrean dagoen etxearen lehenengo solairuan, "Garage (sic) Urigüen" errotulua daukana, Izquierda Republicanaren egoitza zegoen. Okupatzaileek etxebizitza konfiskatu zuten eta Falangearen egoitza jarri zuten bertan.



**AURREGOITI**  
**JATETXEA**  
Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Loiu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteaurregoiti.com

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857

**OAKLAND**  
ENGLISH


**Al-afaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXIPI

Txorierriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)




### NAZIEN TANKEAK, LARRABETZUN

Gaztelumendiko euskal armada errepublikarraren defentsa-lerroa apurtu ostean, 1937ko ekainaren 13an, tropa frankistek Larrabetzu okupatu zuten. Udaletxeko balkoi nagusitik ateratako argazki honetan, herriko plaza ikusten da. Bertan, armada okupatzailearen hainbat ibilgailu daude, besteak beste, Alemaniako Kondor Legioaren Panzer-1 motako bi gurdi blindatu eta, argazkiaren goialdean, eguzkitik babesteko oihal batez estalita, bi artzuru blindatu, jendeak "tiznaos" izenez ezagutzen zituenak.




### PRESOAK, GURE ETXEAN

Homen, udaletxearren erandikina zegoen eraikita, garaiazen arabera erabilera desberdinak izan zituenak: eskola, jubilatuak etxea (Gure Etxea), medikuaren kontsultategia, posta-bulegoa eta udaletxegia. 1937ko ekainaren 13an, Larrabetzu armada frankistaren eskuetan jausi zenean, okupatzaileek eraikin hau ere erabili zuten kartzela gisa, preso errepublikarrak giltzapeteko.



### PRESO ERREPUBLIKARRAK, SARRIA ETXEAN

Gaztelumendiko euskal armada errepublikarraren defentsa-lerroa apurtu ostean, 1937ko ekainaren 13an, tropa frankistek Larrabetzu okupatu zuten. Orduan, ehunka preso hartu zituzten, eta udaletxean eta herriko plaza inguruko beste eraikin batzuetan espetxeratu zituzten, besteak beste, etxe honetan: Sarría etxean. Bertako beheko solairuko leihoetako batean atara zirenen argazkia euskal gudari errepublikar hauei, erreteke artatuen zaintzapean zeudela.



### PRESOAK, UDALETXEO BALKOIAN

Gaztelumendiko euskal armada errepublikarraren defentsa-lerroa apurtu ostean, 1937ko ekainaren 13an, tropa frankistek Larrabetzu okupatu zuten. Orduan, ehunka preso egin zituzten, eta herriko plaza inguruko hainbat eraikinetan espetxeratu zituzten, besteak beste, udaletxe honetan. Bertako balkoian egin zitzaizkien argazkia, irudi honetan agertzen diren euskal gudari errepublikarrei.



### PRESO ERREPUBLIKARRAREN LEKUALDATZEA

Irudi honetan hainbat autobus ikusten dira aparkatuta, 1937ko ekainean. Horietan eramaten zituzten beste gatiuleku batzuetara Burdin Hesian preso hartutako borrokalari errepublikarrak.



Centro Dental

# Txorierri

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
[www.cdtxorierri.es](http://www.cdtxorierri.es)

**ORTODONCIA21**

Txorierriko mugimendu feminista hurrengo talde hauek osatzen dute: Zutunik! (Larrabetzu), Moreak (Lezama), Zapata Gorriak (Zamudio), Koxak (Derio), Garrasia (Sondika) Iretargi betea (Loiu) eta Anpuluek neska gazteen taldea. Mugimenduak hilabeteak daramatza greba prestatzen, gaur egungo zaintza-sistema goitik behera eraldatzeko beharra eta aldarria kalera eramateko. "Instituzioak dena pribatizatzen dabilta eta zaintza negozio bihurtu dute. Etxean zaintzak behar dituen nagusirik egonez gero, aukera bi daude: edo zahar-etxera eramatea eta bere pentsioaren zatia hartuko dute egoitza ordaintzeko; edo etxean bertan zaintzea, eta horretarako 300 euroko laguntza jasotzea. Gainera, azken horrek ekartzen du etxeetan dabiltzan zaintza-langileak egoera prekarioan egotea. Baina ez da bakarrik nagusien zaintzeekin gertatzen; umeen zaintzeekin ere bai. Azken batean, pertsona guztiok zaintza behar dugu jaiotzen garenetik hiltzen garen arte: batzuetan guk zaindu beharko dugu, eta beste batzuetan gu zaindu beharko gaituzte. Eta hori denon ardura da, ez bakarrik emakumeena".

*"Pertsona guztiok  
zaintza behar dugu  
jaiotzen garenetik  
hiltzen garen arte, eta  
hori denon ardura da"*



# Zaintza-sistema publiko aldarrikatuko du mu

Euskal Herriko mugimendu feministak greba feminista orokorrera deitu du azaroaren 30erako. Grebaren erdigunean zaintza-lanak daude, eta besteak beste aldarrikatuko dira zaintza-sistema publikoa eta komunitarioa eta zaintzan dabiltzan langileen baldintzak duintzea. Grebara emakumeei ez ezik gizoni ere deitu diete, "zaintza guztioi dago-kigun ardura delako".

Horrela, merkantilizaziorik gabeko zaintza-sistema publikoa errebindikatzen dute. "Administrazioak dena azpikontratzen du; zaintza-sistema osoa dago enpresen eskuetan. Bestalde, sektore feminizatua da eta bertan dabiltzan emakumeak modu prekarioan lan egitera behartuta daude. Adibide Txorierriko etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileak ditugu". Era berean, mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diete gizoni. "Greba hau 2018ko martxoaren 8tik dator. Urte horretan lau orduko lanuzteak egin ziren, eta hurrengo urtean bakarrik emakumei deitu zitzaion grebara. Baina oraingo honetan aurrerapausoa egiten

*Merkantilizaziorik  
gabeko zaintza-  
sistema publikoa  
errebindikatzen dute*

da, zaintzaren erantzule guztiok garelako aldarrikatzeko. Gainera, pandemian garbi eta garbi ikusi zen zaintza-lanaren inguruko arazoa, eta horrek beste ikuspuntu bat eman digu aurrera egiteko eta ardura honetan gizonak ere nola edo hala inplikatzeko". Horri lotuta, asanblada mistoak egin dira herrietan. "Gero eta gizon gehiago dira euren pribilegioez kontziente, eta gero eta gehiagok nahi dute hori ezereztatu. Prest eta gogotsu dabilta pausoa egiteko, eta, era berean, argi dute honen lidergoa emakumeok

*"Pandemian argi  
ikusi genuen gutxien  
baloratzen duguna,  
prekarioena dena, zein  
garrantzitsua den"*

hartzen dugula. Hala ere, oraindik lan handia egiteko dago gure artean, lagunekin, familian...".

Esan moduan, pandemiak agerian utzi zuen zaintza-sistemak ez zuela ondo funtzionatzen, eta Denon Bizitzak Erdigunean plataformaren baitan mamituz joan zen greba feminista orokorra. "Argi ikusi genuen gutxien baloratzen duguna, prekarioena dena, zein garrantzitsua den; eta zaintza-lan prekario horretan dabiltzanek zaintza egiteari utziz gero, dena jausiko litzatekeela". Aspaldi honetan harremanetan egon dira taldeak eta ekintzak antolatu dira zaintza-lanetan dabiltzan langileen errealitatea hurbiletik ezagutzeko. Txorierriko talde feministek, esaterako, Mujeres No Domesticadas elkarteak kideak gonbidatu zituzten euren egoeraren berri ematera. Horrezaz gainera, talde feministek hainbat bilera egin dituzte, eta greba antolatzeko hainbat ordu eskaini, "greba hau benetan inportantea da eta". Informazioa ere zabaltzeko dute herritarren artean, grebaren errebindikazio nagusiak azaltzeko eta txorierritarrek mobilizazioetan parte hartzera animatzeko.

# koia eta komunitarioa gimendu feministak

## Ekintzak

Nolanahi ere, badakite azaroaren 30-ekoa ez dela greba normala izango, zeren eta, zaintza-lanak ardatz nagusia izanik, paradoxikoki zaintza-lanetan dabiltzan langile askok ezin izango baitute grebarik egin. "Alde batetik, zerbitzu minimoak ezarriko dira, eta beste aldetik, etxeetan egiten diren zaintzak ere hartu beharko dira kontuan. Hori jakinda, keinuak egingo zaizkie greban parte hartu ezinongo duten pertsona horiei. Txorierri, adibidez, auto-karabana izango da eta, nahiz eta zaintza-lanetan diharduten leku gehiago egon, bi geldialdi sinboliko egingo dira: bata, Sondikako zahar-etxean; eta bestea, Zamudioko zahar-etxean". Ekintza gehiago ere antolatuta dituzte egun horretarako. Goizean pikete informatiboak egongo dira, eta gosariak ere izango dira. Auto-karabana Loiotik irtengo da eta Txorierriko herri guztiak zeharkatuko ditu Larrabetzura ailegatu arte. Bertan elkarretaratzea egingo da, eta herrietan bazkariak prestatuko dituzte. "Arratsaldean manifestazioa izango da Bilbon. Hura 17:30ean irtengo da Jesusen Bihotza plazatik, eta herritar guztiak animatu nahi ditugu Lezamatik 16:30ak inguru aterako den tren hartu eta elkarrekin manifestaziora joatera".

Zaintza ardaztat hartuta, hainbat aldarrikapen eramango dira Euskal Herriko kaleetara, hala nola zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea; zaintza zerbitzuen pribatizazioa deuseztatzea; zaintza-sistema

publikoa indartzea eta garatzea; zaintza-langileen baldintzak duintzea; etxebizitza-eskubidea bermatzea; eta pentsio duinak ezartzea. "Azken batean, alderdi asko daude zaintzari lotuta, esparru zabala hartzen du eta. Adibidez, pentsio txikia jasotzen dutenetatik asko emakumezkoak dira, zaintza-lanetan edo lan prekarioetan ibili direnak. Atzerritartasun legea bertan behera uztea ere ezinbestekoa da, etxeetan zaintza-lanetan dabiltzan gehienak kanpotik etorritakoak direlako.

Asko oso egoera zaurgarrian daude eta gehiegikeriak jasotzen dituzte".

Gogora ekarri dutenez, zaintza arazo larria izango da hemendik gutxira, "pertsonon bizi-itxaropena gero eta luzeagoa delako eta batez ere azken urteotan zaintzak behar direlako". Azaroaren 30eko greba tresna izango da zaintza-sistema prekarioa mahai gainean jartzeko eta beste sistema baten beharra aldarrikatzeko.

*"Alderdi asko daude zaintzari lotuta; horregatik, bestek beste, atzerritartasun legea bertan behera uztea ere eskatzen da"*



- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55



**TXAKURPANDA**  
peruqueria • canina

604 91 33 66

DERIO

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai iezaguzu Facebook-en

# Hitzaldia egin dugu San Luis BHIn

t: *Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria*

Denbora luzea da PAI Bitartean zerbitzua Bizkaiko hainbat ikastetxetan hitzaldiak eta heziketa-saioak ematen dabilela, egunero lan egiten dugun kolektiboa ezagutzera emateko eta euren mezua beharrian handiena duten pertsonengana heldu dadin. Batzuetan lan-mundua dugu hizpide; beste batzuetan, adikzioen prebentzioa, substantzia-adikzioak zein substantziarik gabeko adikzioak... Hitzaldiak eta heziketa-saioak ekintza komu-

nitarioen baitan egiten ditugu eta garrantzi handikoak dira guretzat. Hala ere, COVID-19aren ondorioz, urte batzuk eman ditugu egin barik, eta orain, pandemia gaindituta, hasi gara zerbitzua berriro eskaintzen.

Horrela, orain dela gutxi Bilboko San Luis Bigarren Hezkuntzako Institutuan izan gara Gizarteratze goi-mailako ikasleekin. Gazte horiek laster hasiko dira lana topatzen eta guk azaldu diegu gure erakundearen eginkizuna zein den. Era berean, zerbitzua erabiltzen duten pertsonetako batzuk bertatik bertara ezagutzeko aukera izan

dute. Zehatz-mehatz, azaldu diegu gizarteratik kanpo egoteak ekartzen dituen arazoak zeintzuk diren, eta PAI Bitartean zerbitzuan gizarteratze-prozesuei nola heltzen diegun. Saioan parte hartu dugu Derioko eguneko zentroko langile batek eta erabiltzaile bik. Erakundeari buruzko azalpenak eman ondoren, kontatu diegu gizarteratze-teknikariaren eginbeharrak zeintzuk diren; era berean, PAI Bitartean zentroan artatzen ditugun pertsonen bizitza hurbildu diegu.

Saioa amaituta, pozik azaldu gara guztiok. Ikasleei eta irakasleari agur esan diegu, eta azken horrek eskatu digu datoren ikasturtean ere hitzaldia emateko. Hortaz, lerro hauek baliatu nahi ditugu behar duenak hitzaldiei eta heziketa-saioei buruzko informazioa eskatu ditzan. Hurrengo helbide elektronikoa honetara jo dezake: [bitartean@emaus.com](mailto:bitartean@emaus.com).



**IZAN**  
**aikor!**  
lagun

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Urteko kuota, 40 €: \_\_\_\_\_

Beste bat: \_\_\_\_\_

**Kupoa bete eta hona bidali:**

Aikor! aldizkaria  
Aresti kalea 2, behea  
48170 – Zamudio

**Bestela, mezua bidali:**

747 406 561 

**Bestela, sartu:**

[www.aikor.eus](http://www.aikor.eus)

15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahalko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik: moztu, ondo hazten jarrai dezaten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak ba-Dira; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



# Horma-belarra

t: @txiribita\_mundi / a: pexels

*Parietaria officinalis*. Europako harresietan eta hormetan hazten da, gehienbat klima mediterraneoetan eta gune itzaltsuetan. Landare iletua da eta 20 cm-tik 80 cm-ra bitarteko altuera izan dezake. Hosto asko ditu, obalatuak eta aldizkakoak: berde bizi kolorekoak dira kanpoko aldetik; eta berde mate kolorekoak, barruko aldetik. Hostoak eta zurtoina batzen dira. Sikatzeko, gomendagarria da udazkenean eta udaberrian batzea, eta leku itzaltsu batean sikatu.

### Propietate dietetikoak

Oso aberatsa da flavonoideetan, taninoetan, muzilagoetan eta azido glikolikoan. Jateko ohiturarik ez badugu ere, landare jangarria da eta pepinoaren antzeko zaporea du. Gero eta gehiago erabiltzen da, diuretiko aparta delako, eta likido-erretentzioari, gainpisuari edo zelulitisari aurre egiteko egoki-egokia delako.

### Sukaldean

Egosita har dezakegu, barazkiekin batera, zopan edo gordin entsaladetan. Hostorik politenak, freskoenak eta gazteenak aukeratu behar dira beti.

**Horma-belarra tortilla:** perretxikoak zaitu eta berakatz samurrekin batera salteatuko ditugu. Gorritzen direnean, horma-belarra, zatituta, gehituko dugu; nahastu, eta salteatuko dugu. Sobera dagoen olioia kendu, arrautza irabiatuak gehitu, gatza bota, eta tortilla egingo dugu.

### Propietate sendagarriak

Landare hepatikoa da, lagungarria gibelaren hantura gutxitzeko eta bere zelulak babesteko. Diuretikoa denez, likido-erretentziorako erabiltzen da, txiza egitea eragiten du eta. Gernu-traktuko organoen

hantura gutxitzeko ere bada gomendagarria.

**Infusioa:** ur-litro batean 30-40 g hosto egosiko dugu bost minutuan; iragazi, eta hozkailuan gordeko dugu. Ezti apur bat bota dezakegu gozatzeko, edo limoi-ura, ontzeko. Edalontzi pare bat infusio edan dezakegu egunero. Nolanahi ere, gomendagarria da goizero, baraurik, edalontzi bat infusio bero edatea; tratamenduak bederatzigun irauten du eta hobe da denbora-tarte horretan alkoholik ez edatea.

Bestalde, infusio kontzentratua igurtziak egiteko ere erabili dezakegu. Odol-zirkulazio txarrak eragindako arazoak arintzeko erabili dezakegu, hala nola hanka nekatuak, hipertentsioa, barizeak eta edemak, edo artritisa eta erreumak eragindako minak eta hantura arintzeko.

**Kataplasma orbaintzailea eta antiseptikoa:** 35 hosto fresko eta garbi zehatu, eta oihal batez bilduko ditugu. Kataplasma egunean bizpahiru aldiz ipiniko dugu artatu beharreko aldean, behar beste egunetan. Zauriak orbaintzeko baliagarria da, eta erre-dura txikiak edo furunkuluak sendatzeko.

### Erabilera kosmetikoak

Aknerik edo larruzal lehorrik edo narritaturik badugu, horma-belarra erabili dezakegu larruzala freskatzeko. Lozioa egiteko, 30 g horma-belarra har dezakegu, eta urtean sartu; gau osoan beratzen izango dugu. Hurrengo egunean, iragazi, eta aurpegia ura erabilita garbituko dugu; egunero egin dezakegu.

### Bitxikeriak

Horma-belarraren izena latinetik dator, *paries* hitzetik hain zuzen, horma esan nahi duena. Izan ere, Erromatar Inperioaren sasoian ere landare honek hormak apaintzen zituen.

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

# Umeek euren burua defendatzen ikasteko gomendio batzuk

t: Ursula Tomas, psikologoa eta neuropsikologoa

“Umeari beti esan diogu ez duela jo behar, eta ondorioz, besteek bera jotzen dutenean ez du bere burua defendatzen. Zenbateraino da egokia gurasook esku hartzea? Zein modutan?”. Umeak hain egoera tamalgarrian sufritzen ikustea eta zuzenean esku hartu ezin izatea zaila da kudeatzen gurasoentzat. Zer egin dezakegu kasu horretan? Hurrengo leuroetan hainbat gomendio daude.

Egoera desatsegin horretan bagaude, garrantzitsuena da seme-alabei **kontsolamendua eta laguntza eskaintzea**, eta argi eta garbi adierazi ez dadela bakarrik. Era berean, esan behar diegu egoera konponduko dela eta gu beti haien ondoan egongo garela. Indarkeriaz erantzun behar ez badu ere, jakitun egon behar du egoera errepikatatu ez dadin jardun behar duela, konponbidearen zati bat bere esku dagoela eta hori barne-errefortzuko beste baliabide bat dela egoera behin betiko konpontzeko. Irakatsi behar diegu euren **sentimenduak eta beharrianak modu asertiboan** adierazten, eraso fisikora jo gabe; indarkeria erabili barik, gatazkak **elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez** konpontzen. Horrela, lagundu behar diegu **komunikazio-trebetasun eraginkorrak** barneratzen eta **emozioen erregulaziorako trebetasunak** garatzen, haserre edo frustatuta badaude, indarkeria erabili ez dezaten.

Oso garrantzitsua da haien **autokonfiantza eta autoestimua** sustatzea, horrek lagundu diezaikeelako indarkeria-egoerak saihesten. **Mugak jartzen** ere ikasi behar dute, EZETZ esanez eta euren burua baliaraziz. Aipatutako tresnak emateaz gainera, garrantzitsua da seme-alabei adieraztea **laguntza eskatzeko zein bide erabili** ahal duten eta beldurra alde batera utzi behar dutela, dena ondo aterako den usteak sendotasuna ematen du eta. Adibidez, laguntza eskatu ahal diote



Argazkia: Pexels

tutoreari, bere albotik pasatzen den heldu bati edo konfiantzazko lagunei.

Kasu hauetan funtsezkoa da **tutorearekin biltzea**, gure seme-alabekin eta eraso egiten dietenekin lan egin dezaten. Izan ere, gehienetan ahazten zaigu “erasotzaileek” ere laguntza behar dutela. Ikastetxeek jarduketa-protokoloak dituzte eskola-jazarpenari eta -indarkeriari aurre egiteko, eta zentroarekin etengabeko harremanetan egon behar dugu, prozesua nola garatzen den ikusteko.

Gogoratu: umei euren burua defendatzen irakasteak ez du esan nahi indarkeria sustatu behar denik, baizik eta euren burua babesteko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko trebetasunen eta tresnen bidez ahaldundu behar dutela.

## Zure galderei erantzuteko lekua

- Hau zuk ere parte hartzeko lekua izatea nahi dut. Horregatik, umeen jarrerari lotutako kezak, zalantzak eta galderak bidali ahal dizkidazu, eta datozen artikuluetan emango diet erantzuna.

- Nirekin harremanetan jartzeko, idatzi aldizkariaren helbide elektronikora:

[aikortxori@aikor.com](mailto:aikortxori@aikor.com)

# Txangoak Loiu Gurenan

Hainbat urtez geldirik egon ondoren, aurten irteerak egin ditugu berriro, zahar-egoitzaren furgoneta aprobetxatuz. Hainbeste gozaten dugun jarduera honi berriro ekiteak ilusio handia egin digu.

Besteak beste, negutegiak bisitatzera joan gara, Loiu herria, sagardotegi bat, Plentziako hondartza eta Getxoko kirol-portua. Anekdotak ere bizi izan ditugu; adibidez, sagardotegira egindako txangoan, freskagarri bana eta *snack* batzuk hartu ondoren, trivialean jolasean ibili ginen, eta denbora entretenituta pasatzeaz gainera, barreak egin genituen galdera bakoitzaren erantzun zuzena zein zen eztabaidatzen.

Bestalde, Plentziako hondartzan goiza ematea izan da bitarteko gehien behar izan dituen irteera, baita berriena ere. Hara Bizkaiko Foru Aldundiko begiraleek lagunduta joan ginen, eta eguzkitan egon ez ezik bainu freskagarria ere hartu zuten animatuenek eta ausartenek. Gainera, haietako asko ez ziren aspalditik itsa-soan bainatzen, eta oso zirrargarria izan zen!

Oro har, asko harritu gaitu proposatutako ekintzetan hainbeste egoiliar parte hartzeak. Era berean, familien zein hainbat ikastetxetako ikasleen laguntza eskertzen dugu, lana erraztu digute eta. Hurrengo plana antolatzeko irrikan gaudе: Artxandako pasealeku berria ezagutzeko irteera!



**TALDEA**  **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK  
EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**

# Pasta azalore-saltsarekin



a: Ekaterina Bolovtsova (Pexels)

## Osagaiak:

- 350 g pasta
- 200 ml esne
- Azalore ertain bat
- Tipula txiki bat
- 2 berakatz-atal
- Gatza
- Piperbeltza
- Gatza arraspatua
- Intxaur muskatua
- Olioa

## Prestatzeko era:

Azalorea txikituko dugu, eta zatiak ondo garbitu. Uretan egosiko dugu, 10-15 minu-

tuan, gatz apur batekin eta bigundu arte. Xukatu, eta ur apur bat gordeko dugu. Tipula eta berakatzak zuritu eta txikituko ditugu, eta zartagin batean bigunduko ditugu olio apur batekin. Gatza eta piperbeltza bota, eta azalorea gehituko dugu. Bi minutuan salteatuko dugu, zaporeak nahasteko, eta gehituko ditugu esnea, gatza eta intxaur muskatu apur bat; irakiten denean, beste bi minutuan egingo dugu. Ondoren, saltsa xehatuko dugu, harik eta testura mehea eta pikorrik gabekoa lortzen dugun arte; beharrezkoa bada, gordetako ur apur bat botako diogu. Pasta egosi, eta saltsara gehituko dugu; ondo eragin eta sutatik kenduko dugu. Pasta bero atera behar da mahaira.

# Berenjena- eta gazta-tortilla

a: Freepik

## Osagaiak (lau lagunentzat):

- Berenjena handi bat
- 100 g gazta arraspatu
- 3 arrautza
- 2 koilarakada irin
- Koilarakada txiki bat legamia-hauts
- Gatza eta piperbeltza
- Olioa

## Prestatzeko era:

Berenjena xerra mehetan ebagiko dugu, eta xerren gainean gatza bota, gehiegizko likidoa kentzeko. Berenjena-xerrak 30 minutuan jalkitzen utziko ditugu, eta gero ur hotzetan pasatuko ditugu, gatza kentzeko. Bestalde, ontzi batean nahasiko ditugu arrautzak, irina, legamia-hautsa, gatza eta piperbeltza; ondoren, gazta arraspatua gehituko dugu, eta ondo nahasi. Berenjena-xerrak gehitu, eta ziurtatuko dugu nahasiak ondo estaltzen dituela. Zartagin batean olio apur bat berotuko dugu. Nahasiaren puska bat hartu, eta alde bietatik egingo dugu su ertainean, harik alde bietatik gorritu eta kurruskari egon arte; nahi beste tortilla egingo ditugu.



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: freepik



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

-*Puta gorda* (Erein), Yolanda Larreategi eta Helena Azkarraga.

-*Arrakasta* (Elkar), Jasone Osoro.

-*Nikole bijotzekua* (Elkar), Edorta Jimenez.

-*Bekatua* (Erein), Goiatz Labandibar.

-*Isildutako eskuak* (Elkar), Jon Abril.



### LITERATURA: GAZTEAK

-*Brunaren abestia* (Mensajero), Txema Pinedo eta Paul Caballero.

-*Ospa hemendik!* (Erein), Irati Garmendia eta Ane Arzelus.



## Sudokua

			8					
3	5				1	2		
			4					1
			3			4		
					7		1	
	8						7	
	1			5			3	
6		2		4				5
	7	5			8		6	

2	9	6	9	8	3	1	5	7	4
5	1	8	5	7	4	9	2	3	6
4	3	7	6	5	2	9	6	1	8
6	4	5	7	9	2	3	1	8	1
9	1	3	1	9	4	5	8	7	2
8	2	4	8	1	6	3	7	9	5
1	5	1	8	3	7	4	9	2	6
7	4	7	3	9	6	1	8	5	3
3	6	9	5	2	8	1	4	7	9

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburubata:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea  
Zamudio  
944 520 419

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

**Sondigarbi**  
**GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2  
635584941

EGUNERO  
8:00-22:00

## Erakusketak

### Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 11tik 21era, 16.00etatik 20:00etara, Anguleri kultur etxean.

## Hitzaldiak

### Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Oihane Aman-tegiren *Cayo Hueso* lana. Abenduaren 21ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



## Ikuskizunak

### Lezama

- > Ipuin-kontalaria: *Gabonak Din Dan Don Eguberri on*, Sorgina Txirulinaren eskutik. Abenduaren 12an, 17:30ean, Kultura Aretoan.

### Larrabetzu

- > Bea Egizabalen bakarrizketa. Abenduaren 3an, 18:30ean, lekua zehazteke.



- > Zinekluba: *Black is beltza II: Ainhoa*. Abenduaren 19an, 19.00etan, Hori Bain. Solasaldia, Susanna Martinekin.



## Musika

### Larrabetzu

- > Izar Argia abesbatzaren eta musika eskolako ikasleen kontzertu korala. Abenduaren 20an, 19:00etan, Andra Mari elizan.

## Bestelakoak

### Lezama

- > Gabonetako argiak piztea eta elkartasun-txokolatada. Abenduak 15, 19:00etan, Hilario Astorki plazan.
- > Elkartasun-kanpaina. Txartelak abenduaren 15era arte salgai herriko saltokietan. Zozketa, abenduaren 18an, liburutegian.



## Bestelakoak

### Larrabetzu

- > Mahaingurua: Elkarlaguntza talde eta sareekin. Abenduaren 14an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Gabonetako postalen lehiaketaren sariak banatzea. Abenduaren 15ean, 18:00etan, eskolako jantokian.
- > Azoka feminista. Abenduaren 17an, goizean, plazan.
- > Neguko jaialdia. Abenduaren 21ean, 16.00etan, eskolako inguruan.



**Ford** **Goiri'78 s.l.** **Ford**  
Zerbitzu ofiziala

**Txorierri et., 46**  
**48150 Sondika**  
**Bizkaia**

**94 453 25 15**  
**94 453 39 31**

**aldeko** **ne**  
**hortz klinika**  
Tel.: 94 454 15 87

**Anuska Prieto Aguilar**  
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Uribe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

# Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



**Bidali ALTA**  
**747 406 561**  
**telefono zenbakira**

**Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.**

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

# OHIKO LEKUETAN SALGAI

*Zorte on!*

